

Berrigara

BERGARA • ANTZUOLA • ELGETA / Egubakoitza / 2001eko urriaren 19a / 469. zenbakia



OSINTXUKO INDUSKETAK

**Aztarnak ez dira ermitarenak,
baina non zegoen erakusten dute**

ASTEKO BERRIAK: ZABORRARENAKO EDUKIONTZIAK/6 • IGERILEKU BERRIAK: POLEMIKA PIZTU DA/10



Narrua eta Bakeruak



Zabaldu berria !!!

Prezio interesgarriak

**San Pedro kalea 14.
Tf.: 943 76 07 55**

Udazkenean, danbolinaren inguruan!



ERRE ERREKIN

*Erre errekin errekin,
Nork nahi ditu sei gaztaina.*

*Erre errekin errekin
Merke merke alajaina!*

*Gordinak, lirinak,
Laster San Martinak.
Pin pan pin pan,
Danbolina.*

Erre errekin errekin!

Gaztaina erre eguna urriaren 26an San Martin ikastetxean

Arratsaldeko 4:00etan, ikasle eta irakasleok patioan elkartuko gara gaztainak jatera.



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

bergarako ikastetxe publikoak

Boni Laskurain 25
943 76 21 47
182 posta-kutxa
Bergara

ATREBENTZIAEZPADA/ Afganistaneko gerrak gudan eragiñik eukiko dabela uste dozu?



**ANTONIO
MÁRQUEZ**



**JUAN MANUEL
AGIRREZABAL**




**MARTÍN
KORTABARRÍA**



**AITZIBER
ZABALETA**



**MANOLI
RODRIGUEZ**



**JOSE MARIA
DÍAZ**

Momentuz, behintzat, ez dot uste eragin doskunik. Eta espero dot aurrerantzian be guri ezetan ez eragitterik Afganistango gerriak. Gerrek ez dabe ezer onik ekartzen.

Uste dot baietz. Gobernu zentralak aprobetxau egin dau egoeria, Euskal Herri-xan bizi doguna eta Estatu Batuetakua terrorismua-aren poltsa berian sartzeko aprobetxau dau.

Bai. Gerra hori guztion kal-terako izengo dala pentsa-tzen jat. Generuan prezia-igo egin leike. Gaiñera, jen-de asko hilko da. Hori haun-dixak, eurak, arreglau bihar leukie.

Nire ustez, bai. Gobernuak, gaiñera, ejerzitua gerran sartu dau. Bestela, ekono-mian be eragingo dau. Eta lege aldetik be, herritta-rrak kontrolatzeko zorroz-tuko die.

Ezetz uste dot. Dana dala, Bushek egin dabena oso gaizki dago. Ezin da gerra bat horren errez hasi; lehe-nengo, berba egin bihar da, eta jakiña, erruduna billa-tu. Errugabe asko hilko da.

Ez dot uste eragingo dos-kunik. Gaiñera, oihartzun haundixegixa emon jako New Yorkekuari. Hego Amerikako lekuren baten pasau izan balitz, oso dife-rentia izengo litzake.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK EDUKIONTZIAK GAINEZKA Masterrekako edukiontzi hauek ez ei dituzte behar den bestetan husten; papera biltzekoa, batez ere. Kexu hori helarazi digu irakurle batek. Haren esanetan, edukiontzia guztiz betetzen denean, herritarrek kartoia eta papera ontzitik kanpo utzi behar izaten dute. Eta, ondorioz, inguru guztia zikindu egiten da. Gehiagotan hustea komeni./MONIKA BELASTEGI

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KULTURA /12

ZAHARRAK BERRI /14

Arkeologia indusketak

Osintxun eginda-ko indusketetan ez dute aurkitu San Emeterio eta San Zeledonio ermita.

El Salvador argazkitan

Lurrikarek sortutako hondamendiari buruzko erakusketa kultura etxean 23tik aurrera.

Nagusien partaidetza

Erretiratuen kultura hamabos-taldiaren barruan, nagusien partai-detza aztergai datorren astean.

ASTEKODATUA

2,8

AGORROINGO KIROLGUNEAN GASTATUTAKO MILIOIAK

Horixe da kirolgunearen aurre-proiektuan gastatutakoa. Udalak deitutako lehiaketara zortzi arkitekto aurkeztu ziren. Lehiaketatik kanpo geratutako bakoitzari 400.000 pezeta eman dizkio.

BESTEKEESANA

“EEBBek mendekua aldarrikatzen dihardute, eta Munduko zati handi batek haiei laguntzen dihardu, justiziaz berba egiten den bitartean. Aznar-ek eta Piqué-k, morroi irribarrez eta basurdearen moduan letagina zorrotz-zorrotz, euren sakrifizio kuota ordaindu nahi dute, gero, botina euskaldunen haragitan kobratzeko. Gizajoak. Horiek ez dakite Historiak nor bere lekuan ipintzen duela: Jose Antonio Agirrek, Jagi Jagi-koek, ANVkoek, gudariek eta abarrek aliatuekin batera borrokatu zuten, eta bitartean, eurek, Aznarrek-eta, naziekin eta italiar faxistekin ziharduten. Gu, libertatearekin. Eurak, beti, faszioarekin, nahiz eta Pio XII.ak euren tankeak bataiatu izana.

MARTIN GARITANO
GARA/01-10-10

BERAIEKDIÑOË/ Kristina Markina



Lehentasunak

BERRIGARatik artiku-lu bat idazteko eskatu didate, eta gaia aukeratzek hainbat buruhauste sortu dizkit. Izan ere, gaiak barra-barra etorri zaizkit burura: EEBBen nagusikeria inperialistak berriro ere eragin duen egoera larria; gertuago dugun beste Estatu inperialista honek euskal presoei eta, ondorioz, inguruko guztiei ezarritako sakabanaketa; Elkarrik antolatu duen Bake Konferentzia...

Gure herri santu honetatik bertatik atera barik ere, ez zaigu gairik falta: aparkalekuri eza, bideetan jarri dizkiguten aldapa-gora aldapa-bera xalau horiek, euskalduntzearen eskaera jaitsiera...

Guztien artean aukeraketa egin behar eta irizpide gertutatsuna hartzea erabaki dut. Horrela, euskalgintzan dihardugunoi gertuagotik ukitzen gaituen gaiak hausnarketa egin nahi nuke: ikasturte honetako matrikulazio kanpainaren

ondorio kezagarriek ezin utz gaitzakete geldi.

Euskaltegian izena eman dutenen ikasle kopurua bortizki jaitsi da aurtan. Egoera horren aurrean arrazoi-aitzakia bila hasten gara: egoera orokorra da Euskal Herrian; gure eskualdean lan-

egoerak hobera egin duenez eta ia langabeziarik ez dagoenez, jendeak ez dauka euskaltegira etortzeko astirik; makramea, eskulan ikastaroak... hain da zabala aisialdirako eskaintza. Baina, aizue, euskaldun izan nahi badugu,

ezin gera gaitzke eserita euskara elgorria bezala pegatzeko zain. Zerbait nahi duenak trukean zerbait egin behar duela irakatsi izan didate beti, beraz, guk ere, Euskal Herri euskalduna helburu dugunok, egoera honi buelta emateko zerbait eman beharrean gaude. Ea guztion artean lehentasunak finkatu eta euskalduntzearen beharra ikusarazten diegun gure herrian hainbeste diren euskaldun gai guztiei.

“Ea guztion artean euskalduntzearen beharra ikusarazten diegun gure herriko euskaldun gai guztei”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martín Elexpuru
Gorka Ortega

LEGE-GORDAILUA
55-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.580 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 19
MOZOS. San Pedro, 4. 943 76 12 15

ZAPATUA, 20
CAMACHO. Oxirondo, 4. 943 76 11 74

DOMEKA, 21
CAMACHO. Oxirondo, 4. 943 76 11 74

ASTELEHENA, 22
PUY. Barrenkale, 25. 943 76 16 87

MARTITZENA, 23
GUALLAR. San Antonio, 5. 943 76 11 05

EGUAZTENA, 24
ESTELLA. Matxiategi, 5. 943 76 19 63

EGUENA, 25
MOZOS. San Pedro, 4. 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun Etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaletgia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notaritza 943 76 10 73

MEZAK

| | |
|--|--|
| Santa Marina Domekak: 11:30, 13:00. Zapatuak: 19:00. | Labegarieta Domekak: 11:00. San Lorenzo Zapatuak: 20:00. |
| San Pedro Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:15. | Angiozar Domekak: 11:00. Monja Zaharrak |
| Sierbak Lanegunak: 19:30. | Domekak: 18:00. |
| Osintxu Domekak: 11:30. Zapatuak: 19:00. | Zapatuak eta lanegunak: 20:00. |
| Elosu Domekak: 10:30. | Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30. |
| Ubera Domekak: 10:30. | Antzuola Domekak: 09:00, 11:30. |
| San Juan Domekak: 11:00. | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| San Prudentzio Domekak: 10:30. | Uzarraga Domekak: 10:00. |

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OGIA

DOMEKA 21
Konde

OHARRAK

1950EKO KINTOAK
1950eko kintoek (1929an jaiotako gizonak) bazkaria egingo dute urriaren 27an Azpeitxi jatetxean. 943 76 26 53 (Nicolas Arzelus).

1962KOEN AFARIA
1962an jaiotako afaria urriaren 27an Erreki jatetxean. Izena ematea jatetxean bertan.

1947KOEN AFARIA
1947an jaiotako afaria urriaren 27an Tartufo jatetxean. Izena ematea (6.800 pezeta) Euskadiko Kutxan.

1940KOEN AFARIA
1940an jaiotako afaria urriaren 27an Azpeitxi jatetxean. Aurretik, 20:00etan, meza izango da San Lorentzon.

1933KOEN BAZKARIA
1933an jaiotako bazkaria egingo dute urriaren 28an Torrekua erretegian. Izena ematea erretegian bertan.

1939AN JAIOTAKOAK
1939an jaiotako afaria azaroaren 10ean Pertxa elkartearen. Izena ematea: 943 76 28 58 (Pello Garitano).

1930EAN JAIOTAKOAK
1930ean jaiotako bazkaria azaroaren 11n Torrekua jatetxean.

JARDUNENAGENDA

PATINATZERA GASTEIZERA
DBHko 1. eta 2. mailako gaztetxoendako irteera urriaren 27an, Gasteizko izotz pistan patinatzerara. Izena ematea (1.200 pezeta) urriaren 22ra arte zabalik.

KUADRILLATEGI
Aisialdi saioak zapatuan, hilaren 20an, hasiko dira Zabalotegin, 15:30ean.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gaipean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Mari Karmen Gallastegi sailburu ohiarekin

Mari Karmen Gallastegi Ekonomia sailburu ohia elkarrizketatu genuen 1991ko urrian. Gallastegik zortzi hilabete baino ez zituen eman karguan, hiruko gobernu nazionalistan. Hura izan zen emakumezko sailburu bakarra. Gobernua hautsi eta Sarri-koko Fakultatera itzuli zen.



BERTAKO BERTAK / Juan Martin Elexpuru

"Mendigoizale"



Mendizale talde bateko kidia.
-Guti zarra mendigoizale amorratua zuan.

ASTEKOPELIKULAK

'VISIONARIOS'

ZUZENDARIA: MANUEL GUTIÉRREZARAGÓN.
AKTOREAK: EDUARDO NORIEGA, INGRID RUBIO, EMMA SUÁREZ, FERNANDO FERNÁN-GÓMEZ.

HARIA. 1932. urtean, Espainiako Errepublikaren bigarren guduan, Ezkion amabirjina agertu dela zabalduko da.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Egubakoitzean 22:30ean, zapatuan 19:30ean eta 22:30ean, domekan 19:30ean eta 22:15ean eta astelehenean 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



HAUGIROA!

MINIMOA **7°C**
Eguaztena, 10

MAXIMOA **27°C**
Egubakoitza, 12

ASTEKO EURIA **0 L**
(L/m²)

| | Max. | Min. | Euria* |
|-----------------|-------|-------|--------------------|
| Eguaztena, 10 | 23 °C | 7 °C | - l/m ² |
| Eguena, 11 | 26 °C | 9 °C | - l/m ² |
| Egubakoitza, 12 | 27 °C | 14 °C | - l/m ² |
| Zapatua, 13 | 25 °C | 16 °C | - l/m ² |
| Domeka, 14 | 24 °C | 12 °C | - l/m ² |
| Astelehena, 15 | 26 °C | 12 °C | - l/m ² |
| Martitzena, 16 | 26 °C | 9 °C | - l/m ² |

San Juan auzoan jasotako datuak

'LA BANDA DEL PATIO'

ZUZENDARIA: CHUCK SHEETZ.

HARIA. Gaztetxoenei zuzendutako filma. Disney Channeleko marrazki bizidunen telesaileko pertsonaiak pantaila handian ikusteko aukera. Ikasturtea amaitu eta oporrak heltzean, protagonistak abentura mordotan murgilduko dira.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Zapatuan eta domekan 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

INDUSKETAK/ Osintxuko ermita non zegoen jakin ahal izan dute

Espero zuten ermitaren arrastorik ez dute aurkitu Osintxun egindako indusketetan

AINZANE IRIZAR

Osintxun egindako indusketetan ez dute ermitaren aztarnarik aurkitu. Eliza parean zegoen tailer zaharra bota behar zutela eta, Aranzadi Zientzia Elkarteari indusketak egitea eskatu zion Udalak, toki horretan ermita bat egon zela uste zuten-eta.

Udal museologoak eta Diputazioako arkeologo batek egindako azterketa baten, tailerra baino zaharragoak ziren horma-bular bat eta horma zati bat aurkitu zituzten. Orain Aranzadi Zientzia Elkartekoekin egin dituzten indusketen helburua zen horma horiek XVI. mendeko ermita batenak ziren frogatzea.

Indusketa horretan San Emeterio eta San Zeledonio ermitaren arrastoak aurkitzea espero zuten. Hori zen hasierako helburua, baina ez dute horrelako arrastorik aurkitu. Larraitz Arretxea Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologo eta indusketen zuzendariak azaldu digunez, "behin hormak ermitarenak ez direla ikusita, indusketen helburua ere aldatu egiten da". Ondorio garbi bat, behinik behin, atera dute: orain indusketak egin dituzten tokian ez, baina hegoalderago zegoela ermita, gaur egun autobus markesina dagoen tokian, hain zuzen ere.

BI HORMA AGERRARAZI DITUZTE

"Hainbat zundaketa egin ditugu, hau da, tokian tokiko zuloak, aztarna bila", azaldu digu Larraitzek. Zundaketa horietan bi horma aurkitu dituzte. Horietako bat, horma luze bat da: "guk 15 bat metro azalarazi ditugu, baina hori baino luzeagoa da. Horma luze horrek ibaiaren ibilbidea jarraitzen du, ibaiaren kontran. Hórregatik, ibaiari eusteko pareta bat izan zitekeela uste dute Aranzadiko kideek. Horma horren barruan Aro Modernoko (XVI-XVII. mendeak) hainbat material azaldu dira: zeramika zatiak, pipa zatiak eta txanpon bat. Dena dela, Larraitzen esanetan, material hori guztia laborategira bidali eta ikertu egin behar da.

ERMITARIK EZ, BAINA DATU GARRANTZITSUAK AURKITU DITUZTE

Aurkitu duten bigarren hormak alderdi bat erreta dauka; Larraitzen esanetan, "daukagun dokumentazioaren arabera, badakigu 1863. urtean etxe bat erreta zegoela ermitaren iparraldean. Dokumentu horietan 'La casa de la Vega' izena ematen zaio etxe horri.

Beraz, dokumentu horiei esker eta aurkitu duten erretako horma horri esker, San Emeterio



MONIKA BELASTEGI

Aranzadi elkarteko arkeologoek bi horma agerrarazi dituzte, eta hainbat pieza aurkitu.

eta San Zeledonio ermita orain indusketak egin dituzten tokitik hegoalderago dagoela jakin ahal izan dute, esan bezala, gaur egun autobus markesina dagoen tokian, gutxi gorabehera. XVI. mendekoa izan daitekeen ermita hori errekek eraman zuen, eta dokumentuek esaten dutenez, ermita zaharraren parean eraiki zuten beste ermita. "Beraz, datu horrek beste aztarna bat ematen digu, eta logikoa da markesina dagoen tokian egotea ermita", azaldu digu Larraitzek.

ERMITA, GIPUZKOAKO BAKARRETARIKOAK

Ermita honi buruzko lehen aipamen dokumentala 1547koa da, baina baliteke ermita hori baino lehenagokoa izatea. Gipuzkoan ez dago XVI. mendeko ermita askorik. Gainera, "santu horien (San Emeterio eta San Zeledonio) gurtzea Erdi Arokoa da", diosku Larraitzek. Santu horiek gurtzen dituzte bost ermita bakarrik daude Gipuzkoan, denak inguru berean, gainera. Elgetan, Sorailuzen eta Azkoitian ermita bana, eta Osintxun bi, galdutako ermi-

ta eta gaur egungoa kontuan hartuta. Larraitzek azaldu digunez, "santu hauenganako adokazioa Bizkaitik sartu zen Gipuzkoara". Iaz Azkoitian egin zituzten indusketak, eta Erdi Aroko txanponak azaldu ziren. Aurkikuntza horien arabera, XIII. eta XIV. mendean dagoeneko han zegoen ermita, eta erabiltzen zuten, gainera. Larraitzen esanetan, "hemen ere era horretako aurkikuntzaren bat egitea zen gure helburua, baina momentuz, behintzat, ez dugu lortu".

AURKITUTAKO MATERIALA ARANZADIRA

Esan bezala, txanpon bat, zeramika zatiak eta pipa zatiak aurkitu dituzte Aranzadiko arkeologoek. Larraitz Arretxearen ustez, ez dute balio handirik aurkitu dituzten elementu horiek. Hormek, adibidez, hainbat datu jakiteko bidea eman dieten arren, ez dute bestelako garrantzirik. Arretxearen esanetan, "ez du merezi hormak mantentzea eta horretarako plan bat egitea". Arkeologoak dokumentatu egin dira, batez ere, indusketa hauei esker: marrazkiak eta plano topografikoak egin dituzte eta argazki mordo atera dute.

Topatutako material guztia Aranzadira eraman dute, eta han ikertu egingo dute. Larraitzen ustez, ez dute denbora luzea behar izango noizkoak diren jakiteko, elementu gutxi topatu dituzte-eta. Aranzadin elementu guztiak garbitu, zenbatu eta inbentarioa egingo dute. Inbentario horrekin batera, txosten bat egingo dute Aranzadi Zientzia Elkartekoekin, eta Bergarako Udalera eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko dute. Behin txostena entregatuta, aurkitutako material edo elementu guztiak Aranzadik duen biltegian gordetzen dituzte. "Aurkikuntza horiek guztiak denak dira, baina denak toki berean gordetzen ditugu, Aranzadi Zientzia Elkartearen deposituan, hain zuzen ere; gero, nahi duten ikertzaileek badute material hori ikusteko aukera", azaldu digu Larraitzek.

LARRAITZ ARRETXEA / ARANZADI ELKARTEKO ARKEOLOGOA

"Erdi Aroko bide batean dago ermita"

Dagoeneko badakizue non zegoen ermita. Indusketak egingo dituzte?

Ez, oraingoz ez. Hori Udalaren esku dago. Gainera, kontuan hartu behar dugu ermita hori errekek eraman zuelako desagertu zela. Oraindik ez dakigu zer eraman zuen ibaiak, eta zer geratu zen, zelan geratu zen ermita ezbehar horren ondoren. Beraz, indusketak eginda ere, ez dakigu ezer topatuko genukeen. Bestetik,



ildo honetatik, esan behar da orain egin ditugun indusketak egitea ez zela beharrezkoa, hau da, legerak ez zuela Udala horretara behartzen. Hala ere, indusketak

egitea erabaki zuen. Oso ondo egin du Udalak nire ustez; lanak egiteko momentuak aprobetxatu egin behar dira horrelako gauzak egiteko, beste inoiz ez dira egiten. Gainera, ikusten duzu, astebeteko lana nahikoa izan dugu ez genekien gauza batzuk, asko ez badira ere, jakin ahal izateko, datu garrantzitsuak lortu ahal izateko.

Baina, interesgarria litzateke indusketak egitea, ezta?

Bai, oso interesgarria izango litzateke; gainera, kontuan hartu behar dugu toki berezi batean dagoela ermita, bide oso garrantzitsu batean. Bide hori Erdi Arokoa da, eta kostaldea eta barrualdea lotzen zituen garai hartan. Horrek esan nahi du, merkataritza ugari pasatzen zela hemendik, eta oso leku aproposa zen ermita bat jartzeko. Baina, momentuz, ez dakigu ezer hori baino gehiago.



ARTXIBOA

Beira eta paperarekin egiten dugun bezala, edukiontzira bota beharko ditugu zabor poltsak urtarriletik aurrera.

ZABORRA/ Urtarriletik aurrera ez dugu zaborra ateratzeko egun eta ordurik izango

Zaborra botatzeko 119 ontzi jarriko ditu Udalak herrian

MONIKA BELASTEGI

Urtarriletik aurrera ez dugu zaborra ateratzeko ordu eta eguna zaintzen ibili beharko. Debagoieneko Mankomunitateak zaborrendako edukiontzi zerbitzua jarriko du abian. Bergaran 119 jarriko dituzte, orain arte zaborra lagatzen genuen gunetan.

2002ko urtarriletik aurrera zaborra uzteko "B/Z" guneez ahaztu eta horretarako bereziki prestatuta dauden edukiontzietara botatzen ohitu beharko gara. Mankomunitateak zaborra botatzeko hainbat edukiontzi jarriko ditu ibarrean; Bergaran, 119.

Edukiontzi zerbitzu horretaz arduratzeko, FCC (Fomento de Construcciones y Contratas) enpresa azpikontratatu du, eta enpresa hori arduratuko da edu-

kiontziak noiz betetzen diren kontrolatu eta husteaz. Bergaran bi neurriko edukiontziak jarriko dituzte: 45 ontzi 3.200 litroko edukierakoak, eta gainerako 74 ontziak 2.004 litrokoak.

ORAIN ARTEKO TOKI BEREAN

Edukiontzi ia guztiak orain arte zaborra uzten genuen gunen bertuetan jarriko dituzte, nahiz eta batzuetan metro gutxi batzuetako gorabehera egon daitekeen.

Zerbitzu berriaren onurak

Debagoieneko Mankomunitatearen iritziz, zaborrendako edukiontzi zerbitzuak hainbat onura ekarriko dizkie herritarrei, langileei baita Mankomunitateari berari ere. Batetik, norberak nahi duen orduan atera ahal izango du zaborra. Bestetik, Mankomunitateari dagokionez, ez da kezkatu behar izango hainbat arazoirengatik batzuetan jaso gabe geratzen den zaborra dela eta.

Azkenik, zaborra batzen aritzen diren langileei ere erraztasunak ekarriko dizkiete edukiontziek. Izan ere, zerbitzua bitarteko mekanikoekin egingo dute, eta era automatikoan.

LABURRAK

Gabonetako argiak abenduaren 20an piztuko dituzte, eta hiru milioiko aurrekontua dute

Udalak Gabonetako argiteriarendako aurrekontua onartu berri du: 3.000.000 pezeta. Gainera, argiteria jarriko duen enpresa kontratatze baldintzak onartu dituzte, eta lehiaketara atera.

Aurtengo Gabonetan, abenduaren 20an piztuko dituzte argiak, eta urtarrilaren 7an kendu. Argioek honako toki hauetan jarriko dituzte: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Espaloia, San Pedro kalea, Artekalea, Arruriaga, Fraiskozuri, Barrenkalea, azokako fatxada, herriko sarrerak eta baserri-auzoak. Abenduaren 20an, Udalarek jaiotza ere irekiko dute.

Irizar jauregiaren parkeko lorategiak eta bideak berregokitu egingo ditu Udalak

Irizar jauregiaren parkea berregokitu egingo du udalak. Batetik, lorategiak txukundu egingo dituzte: garaiko loreak sartu eta ureztatze hodi berriak jarriko dituzte, orain daudenak apurtuta daude-eta. Horrez gain, lorategien arteko bideak konpondu egingo dituzte. Bide horiek harri txiki solteak dituzte, eta Udaleko iturrien esanetan, zikina izateaz gain, deserosoa da oinezkoendako. Hori horrela, asfaltoa botako dute.

Lan horiek 3.000.000 pezetako aurrekontua dute. Udaleko iturriek esan dutenez, berregokitzea handiagoa izan zitekeen arren, ez dute diru askorik gastatu nahi izan. Izan ere, Seminarioan hasi eta Irala kale artean dauden lorategi eta terrazak aldatzeko proiektu zabalagoa du Udalak. Irizar jauregi parkea ere proiektu zabalago horren barruan aurrez ikusita dago.

Negua heldu aurretik, herriko hainbat kale asfaltatzeko lanak hasiko ditu Udalak

Herriko hainbat kale asfaltatzeko baldintzak kaleratu ditu Udalak. Kale horiek guztiak asfaltatzeko aurrekontua hamazortzi milioi pezetakoa da. Udaleko iturrien esanetan, lehenbailehen ekin nahi diete kalez kale asfaltatzeko lanei, hilabete amaierarako, gutxi gorabehera. Dena dela, atzeratu eta urri amaieran hasiko ez balira ere, ziurra da negu aurretik hasiko direla, euririk egiten ez duen sasoa aprobetxatzeko.

Honako hauek dira asfaltatuko dituzten kaleetako batzuk: Irizar pasealekua, Fraiskozuri kalea, Ibargarai Iribide ia osoa, Martoko kalea ibai aldetik, Urteaga kalea, Espaloia kalea, Santa Marina, Magdalena plaza eta Boni Laskurain.

Esan bezala, kale horiek asfaltatzeko baldintzak lehiaketara atera dituzte, eta adjudikatu ahala joango dira konpontzen.

Ekonomia jardueren gaineko zerga ordaintzeko, azaroaren 10era arte zabalik

Udalak herritarrei jakinarazi nahi die 2001eko ekonomia jardueren gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko epea azaroaren 10era arte irekita dagoela. Data horren ondoren egindako ordainketak errekararekin egingo dira. Ordaintzeko era eta lekuak honakoak dira: erreziboan ordainketa banketxeren batean helbideratuta duten zergadunei, banketxe beraren bidez bidali eta kobratuko zaie. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek, aldiz, datozen egunetan euren etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharko duten agiria. Agiri horrekin, edozein banketxe edo udal bulegotatik pasa daiteke ordainketa egiteko.

Agiria urriaren 31 baino lehen jasotzen ez bada edo azalpenen baten beharra izanez gero, Kontu-hartzailetzako bulegotatik pasa daiteke.



BANKINTER

%4,95

etik aurrera lehen 3 urteetan

Euribor-a + %0,50 garbia, ondoren*

*Irekiera
komisioa:
%0,25
35 urte
bitartearaino

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. BERGARA
943 76 02 57



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ELKARRIZKETA

JAVIER YANGUAS/MATIA FUNDAZIOKO IKERKETA/GARAPENERAKO ZUZENDARIA

“Gizarte indibidualista gara; ez dugu parte hartzen, ez nagusiek ez gazteek”

MONIKA BELASTEGI

San Joxepeko kultura hamabostaldiaren barruan, Javier Yanguas Matia Fundazioko kideak hitzaldia egin zuen martitzenean Miguel Altuna institutuan. Nagusiek XXI. mendean duten erronkez jardun zuen Yanguasek.

Zein da nagusiek XXI. mendean duten erronka?

Bi, nagusiki. Bata, oraindik ere dituzten beharrak: osasuna, etxebizitza, pentsioak... Hau da, erretiratu ostean euren bizitza garatzeko behar dituzten gauzak lortzea. Bestea, Kennedy-k esaten zuena, nahiz eta “hortera” xamar geratzen den; hark bi galdera planteatzen zituen: zer egin dezake gizarteak nigaratik? eta zer egin dezaket nik gizarateagatik?


Bigarren galdera horri erantzutea eta zelan erantzun da bigarren erronka. Eta erantzun posibleen artean, parte hartzea aipatzea. Dena dela, hori guztia nire iritzi pertsonala da. Ez dut inoiz esango erronkak horiek biak direla eta kito. Izan ere, erronkak komunitarioak edo banakakoak izan daitezke.

Parte hartzea aipatu duzu. San Joxepeko hamabostaldiaren gai nagusia da. Horrek esan nahi du kezka hori nagusiek badutela?

Baina San Joxepekoa laku bat da basamortuan. Orokorrean, nagusiak ez dira parte hartzaileak, inplikazio txikia dute. **Baina gazteen artean ere hori gertatzen da.**

Bai, gaur egun gure gizaratean dagoen balio nagusia indibidualismoa da. Eta parte hartzea eta balio indibidualista hori ez datoz bat. Parte hartzea, gaur egun, iraultzarekin lot daiteke. **Nagusiek ze argudio erabiltzen dute parte ez hartzeko?**

Batzuek, akaso, nahi ez dutela edo denborarik ez dutela diote, baina oro har, esaten dute inoiz parte hartu ez badute zer-



MONIKA BELASTEGI

“Kennedy-k egiten zuen galdera bat da edadetuen erronka: zer egin dezaket nik gizaratearengatik?”

gatik hartu behar duten nagusi direnean. Hezkuntzan landu beharko litzateke parte hartzea. Gazte batzuek hainbat mugimendutan parte hartzen dute, baina gutxienak dira. Gero eta gehiago bizi gara bakoitza bereira. Parte hartzea oso txikia da.

“Etorkizunean, parte hartzea nagusien aldetik etorriko da, gizartea zahartzen baitoa”

Parte hartzea lor daiteke?

Etorkizunean, nagusien aldetik etorriko da. Gero eta ume gutxiago ditugu, eta hemendik hamar urtera, Euskadiko gizartea zaharkitua egongo da. Ezinbestean etorri beharko da parte hartzea nagusiengandik.

LABURRAK

San Martzialera doan bidea konpontzeko albistearen gaineko zuzenketa

Joan den asteko BERRIGARAn San Martzialera doan bidea bi hilabete barru konpontzen hasiko direla jarri genuen. Oraindik, baina, ez dago zehazterik lan horiek noiz hasiko diren. Udalak bidea zabaldu eta konpontzeko proiektua idaztea esleitu baino ez du egin. Gainera, proiektua idatzita jaso ostean, Diputazioarekin adostu beharko du Udalak lanak zelan finantzatu.

Eguenean epailearen huts batengatik atxilotu zuten Pili Agirre, eta egun berean aske utzi

Joan den egunean, hilaren 11n, goizaldean, polizia Pili Agirre atxilotu zuen Castellongo hotel batean. Atxiloteta epailearen hutsegiteagatik egin zen. Agirre maiatzean epaitu zuten eta kartzela zigorra kentzea adostu zuten. Hala ere, erabakia ez zen epaitegira bidali, eta Agirreraren atxiloteta agindu zuten. 14:00etan aske utzi zuten Agirre, abokatuak akatsa argitu ondoren.

Miguel Altuna institutuko informatika gelak zabalik ditu ateak herritarrendako

Miguel Altuna institutuaren informatika gelak zabalik ditu ateak nahi duen guztiarendako. Interesa duen edozein herritarrek eskura ditu han ordenagailuak eta zerbitzua. Gainera, doan da. Honako ordutegia du: asteleheneetik egubakoitzera 15:00etatik 19:00etara, eta zapatuetan 09:00etatik 13:00etara.



la mila milioi jasoko ditu Udalak Aldunditik

Udalak 997.551.632 pezeta jasoko ditu 2002. urtean, Foru Aldundiak ematen duen Udal Finantzaketarako Foru Fondotik (UFFF). Iaz baino 61.638.683 pezeta gehiago. Arrazoia da Foru Aldundien Solidaritate Fondoa Gipuzkoarendako izango dela oso-osorik. Hori horrela, UFFF ere gehitu egingo da eta Gipuzkoako udalek diru gehiago jasoko dute.

ATARI

Zure auzo elkarteko,
etxebizitza eta
garajeko arazoak
konpontzeko gertu.

Finka administrazioa. Kolegiatu zkia. 574
Ibargarai 1. Bergara. Tel. 679 378 192. Faxe 943 76 38 41

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75

EDEL

TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

LORONTZI JANTZIAK

Apain-apain jantzi dituzte Kruz Gallastegi kaleko lorontziak, besteak beste. Kaleko espaloian dauden harrizko lorontzi handi horiek apaintzen harrapatu genituen joan zen martitzenean Udaleko bi lorezain. Inguruan zebilen jendearen komentarioak ere 'harrapatu' genituen, eta ez zieten loreei etorkizun oso onik ikusten: laster desagertuko dela loreren bat, apurtuko duela norbaitek besteren bat... Ea ez den horrelakorik gertatzen, dotore asko laga zuten-eta kalea.



BI METROKO PATATA SUSTRAIK

Horra hor Pedro Zafra kilo banako hiru patata eskuan dituela, eta baita bi metro eta 25 zentimetroko patata sustraiak ere. Pedrok azaldu digunez, patatak tamaina horretakoak izateak ez ei du harritu; baina, luzera horretako sustrairik ez ei du sekula ikusi. Pedrok Ubitta baserrian dauka baratzea. Kontatu digunez, aurten ez da patata urte bereziki ona izan; gainera, beste urteetan baino kilo gutxiago batu omen ditu. Hala ere, hor ikus dezakezue argazkian, patata eta sustrai galantekin!

UDAL LANGILEAK LEHEN LAGUNTZEN IKASTAROAN

Udaleko langileak lehen laguntzei buruzko ikastaroak jasotzen ari dira. Brigadakoek urriaren 5ean hasi zuten ikastaroa, eta hiru saio izango dituzte, urriaren 26an azkena. Udaltzainek ere ikasi beharko dute lehen laguntza ematen; horiek urriaren 30ean eta azaroaren 6an izango dute ikastaroa. Azkenik, Udaleko gainerako langileek ere ikastaro hau egingo dute azaroaren 13an. Udaleko Segurtasun eta Osasun batzordeak antolatu ditu ikastaro horiek.



UMEAK NAGUSI NAGUSIEN JAIAN

Gustu guztietarako ekitaldiak antolatu dituzte San Joxepeko eta Antzuolako erretiratuek Kultur Hamabostaldiaren barruan. Horien artean, joan zen eguenean, urriak 11, jai bat ospatu zuten; denetarik izan zuten: Moises Azpiazu dantza taldeko neska mutikoek erakustaldi bikaina egin zuten, hasteko. Ondoren, bertsolarien txanda izan zen. Meriendatzeko ordua ere iritsi zen, eta ogitarteko ederra jateko aukera izan zuten San Joxepera joandako guztiek. Bukatzeko, nola ez, nagusiei ere iritsi zitzaizen dantzarako aukera. Elkarri gerritik heldu, eta majo ibili ziren denak, bai horixe!

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK
MOKETA ETA SINTASOLA
IZTUKU ESPONJATUA

PAPER PINTATUAK
HAREA ZORROTADA
IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

AGOITZ
tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

ile
apaindegia

edertze gela

disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

BERGARARRAK MUNDUAN

MIKEL GANTXEGI

29 URTE / INGENIARIA / CELAYA (MEXICO)

“Batez ere, familiaren eta lagunen falta nabari dut. Eurria ere bai”

MONIKA BELASTEGI

Lana. Horrexegatik joan zen Mikel iaz, martxoan, Mexikora. Guana-juato estatuko Celaya herrira, hain zuzen ere, errepublika erdi-erdira. Elay taldeak lantegi berria ireki behar zuela-eta, “lantegia eraiki eta abian jartzera etorri nintzen, hiru urterako”, esan digu Mikelek. “Lanak eta lanpostuak interesgarriak ziruditen, eta gainera, emazteak eta biok beti izan dugu gustuko bidaiatzea. Horrez gain, garai hartan, Bartzelonan egiten genuen lan, eta Mexikora joatea Bergara itzultzeko aukera ere bazen”.

Mexikoko bizimodura ohi-tzeko arazorik ez dute izan: “Hizkuntza jakiteak eta eguraldiak asko laguntzen dute tokira ohitzeko. Gainera, eguneroko martxa Euskal Herrikoaren oso antzekoa da”.

Era berean, lagun ugari egin dute, eta asteburuetan aprobetxatzen dute zinemara joateko, lagun artean egote-ko edo etxeko igerilekuan lasai-lasai egote-ko. Baina horrekin guztiarekin ere, Bergara faltan sumatzen duela aitortu

digu, “familia eta lagunak, batez ere, baita zapatu arratsaldetako txikiteoa, mendi irteerak eta eurria ere”.

Mikelen ustez, guztiz gomendagarria da horrelako esperientzia bat izatea: “Kultura, ohitura eta, azken baten, bizitzeko modu berria ezagu-

“Elay-ren lantegi berria eraiki eta abian jartzera etorri nintzen Mexikora”

tzeko aukera izan dugu. Hori oso aberasgarria da, gauza berriak ikasteaz gain, norbera baloratzen ere erakusten duelako”. Bestalde, Mikelek gogorarazi digu lantegi bat eraiki eta abian jartzera joan zela, eta “lursail huts batean enpresa bat eraiki eta produzitzen jartzea lan gogorra baina, era berean, oso atsegingarria izan da”.



MINGAINARITIRAKA



Beatriz Agirre

Agirre DENDAKOA

Beatriz hamalau urte zeuskala hasi zan familixiana dan Agirre dendan lanian. Dendiak 54 urte daroia zabalik, eta puntuan berritu dabe. Beatriz oso pozik dago aldaketiakin.

Zure lanak daukan gauzarik onena? Eta ez hain ona?

Onena, bezeruekin hartu-emonan; hain ona, lan lotua dala eta beherapenetako datak ez diela errespetatzen.

Ze erropa marka gustatzen jatzu? Gure dendetik Jocavi eta Guitare, eta gizonendako Lacoste.

Eta ze jantzi?

Amerikania edo sport txaketa.

Bergararrak zela definiduko zifuzke jantzeko orduan?

Gizonak, jeneralian, oso klasikuak die. Andrak ausartagoak gara. Baiña jendia ondo janzten da.

Ze bezero mota da onena?

Ze nahi daben dakixena.

Gizonak erosten dabe erropia ala andriak erosten dotse?

Andriak, jeneralian. Askok eruan egitten dabe gizonak probatzeko.

Denpora librian ze egitten dozu?

Mendixan ibilli, pasiau eta zinera jun.

Ze mendittan egon zara azkenekoz? Urbixan, domekan bertan.

Eta ikusi dozun azkeneko pelikulia? Pearl Harbor.

Janari eta edari bana?

Beti izan naiz nahiko mikia jateko. Baiña bueno, arraiña igual. Edarixa, ardo beltza.

Bergarako tokirik gustokuena?

Goenkale eta San Pedro ostia.

Osama Bin Laden ala Bush?

Ez Bush ezta Bin Landen be.

Nostalgia denda berritzian?

Ez. Desiatzen genden berritzeko, eta oso pozik gare aldaketiakin.

MONIKA BELASTEGI

NIRE BIDAIA HURA / Damaso Gallastegi

Sahara / 1990eko abendua

Urte hartan, bi aukera ikusi zituen Damasok Gabonetako oporrak pasatzeko: bata, iparraldeko elurretara joatea; bestea, hegoaldeko eguzki epele-ara. Aukeraketa egitea oso erraza izan zen: “Elurretan ibilita geunden. Hortaz, eguzkitara joatea erabaki genuen”.

Hegoalde eguzkitsura, bai, baina nora? Saharara; Saharako Hoggar mendietara. Izan ere, une hartan nahi zuen guztia zuten Saharak eta Hoggar mendiek, Damasok dioskun moduan: “Exotikotasuna, bidaiabentura eta eskalada”.

Abenduaren 21ean, bost lagun abiatu ziren, Bergarako bi eta Eibarko hiru. Bilbon Land-Roverra alokatu, eta Bergara eta Hoggar mendiak lotzen dituzten 5.000 kilometroekin zieten. Kilometro horietatik guztietatik, 2.000 basamortuan egin zituzten, eta kostata, gainera: “Basamortuan, bideak duen arrastoa galdu egiten da. Kilometro batetik bestera hiru metroko pilonak daude, eta horiek aurkitzen joan beharra dago bide egokia jarraitzeko. Bestalde, zorua oso zimurtua dago, eta 70-80 kilometro orduko joatea da gomendagarria. Baina dardarizoa ezin ekin daiteke”.

Janaria hemendik eraman zuten. Ura eta erregaia hantxe erosi zituzten. Biderako nahikoa eta “badaezpadako” pixka bat.


Sei egun eman zituzten Hoggar mendietara heltzeko: “Irudi zoragarria basamortuko linealtasunean 300 metro gora egiten duten harkaitzeko orratz haiek ikustea”. Han nahi beste eskalatu, eta urtarriaren 6an itzuli ziren.

Oroitzapen asko ditu Damasok bidai hartaz, eta bat gogoratzen du, bereziki: ekarri zuen logurea. “Egunez 25 gradutan eta gauzez 15º zero azpitik, ezin nuen lorik egin”.

MONIKA BELASTEGI



Irudiko Hoggar mendiak eskalatu zituzten bidaiako bost lagunek.



“Abentura, exotikotasuna eta eskalada batzen zituen bidaiak hark”

“Beste gauza batzuen artean, ekarri nuen logura oroitzen dut”

Agirrebeña

JATE TXEA




Ibarra kalea 2 • Bergara • Tf. 943 76 20 38

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



Ur~bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

IGERILEKU BERRIEN AURREPROIEKTUA

Agorrosingo kirolgunerako kirol taldeen iritzia kontuan hartu dutela dio alkateak

Bergara Igeri elkarteak eta Beti-Busti piraguismo taldeak komunikaziorik ez dela egon salatu zuten prentsaurrekoan

EDU MENDIBIL

Victoriano Gallastegi alkatearen arabera, nahiko komunikazio egon da Udalaren eta herriko kirol taldeen artean Agorrosingo kirolgune berriaren aurreproiektua lantzeko. Bergara Igeri Elkarteak eta Beti-Bustik Udalaren jokaera salatu zuten urriaren 2an.


Bergara Igeri Elkarteak eta Beti-Busti piraguismo taldeak prentsaurrekoan salatu zuten, Udalak komunikazio falta nabaria azaldu du Agorrosingo kirolgune berria lantzerako orduan: "argi dago ez duela kirol taldeon proposamenak kontuan hartzerik nahi".

Victoriano Gallastegi alkateak Bergara Igeri Elkarteari eta Beti-Busti piraguismo taldeari erantzun nahi izan die: "hasieratik garbi izan dugu kirol instalazio berrien proiektua agindu aurretik kirol elkarten iritzia jakin nahi genuela, eta joan zen urtarrilean klubekin lehen bilera izan genuen, aurreproiektuaren inguruan berba egiteko. Bestalde, Udalak deitutako lehiaketan aukeratutako aurreproiektua erakutsi genien taldeei ekainean, eta nahi zituzten proposamenak egiteko epea zabaldu genuen. Idatzizko bi proposamen jaso ziren eta biak 50 metroko igerilekua, kanpoko, mantentzearen aldekoak ziren".

Hain zuzen ere, Bergara Igeri Elkartearen eta Beti-Bustiren ustetan zentzugabekeria da 50 metroko igerilekua kentzea: "instalazio egokirik gabe goi mailako igerilariak izatea ezinezkoa da, eta Udalaren egitasmoa herriko igerilarien kalterako da argi eta garbi. Bestalde, etorkizunean waterpolo talderik sortzea ere baztertu beharko litzateke proiektu berriarekin.

ESPazio FALTA

Alkateak adierazitakoaren arabera, kanpoko igerilekua mantentzeko aukera aztertu zuten udaletxean: "uztailean zehar, Kirol Kontseiluan lehenbizi eta EAJ-EA eta EHko zinegotziekin ondoren, jasotako proposamenak aztertu ziren, baina ez ziren onartu, espazio faltagatik, gaur egungo 50 metroko igerilekua goitik behera apurtu beharko zelako edota igerilekuaren mantentze-gastuak oso altuak izango zirelako. Gure ustez nahiko komunikazio egon da Udalaren eta klubaren artean, eta epearen barruan, abuztura arte ez zen proiektua enkargatu eta. Esan beharra dago kirol taldeek gauza interesgarriak esan dituztela, eta adibidez putzu handiaren



EDU MENDIBIL

Udalaren egitasmoan kanpoko igerilekua kentzea aurreikusten da. Proiektuak Udalaren eta Igeri elkartearen artean polemika piztu du.

*Gallastegi
alkatearen arabera
ezinezkoa da 50
metroko igerilekua
mantentzea*

sakontasuna aldatu egingo dela klub baten proposamenari jarraituz".

HIRU IGERILEKU

Udalaren aurreproiektuaren arabera, oraingo instalazioak bota eta hiru igerileku egingo dituzte: ige-

*Igeri elkarteak eta
Beti-Bustik kanpoko
igerilekua kentzea
zentzugabekeria
dela diote*

rileku handia igeriketarako (estalia eta 25x25 metrokoa ziurrenik), txikia umeendakoa (estalia baita) eta hirugarren bat aisialdirako (borobila eta uda partean estalkirik izango ez lukeena). Udalaren egitasmoak zeresan ugari eman du azken hilabeteotan, batez

*Udalaren
egitasmoan
Agorrosin hiru
igerileku berri
aurreikusten dira*

ere igerilekuetako erabiltzaileen artean.

Bittor Alberdi Bergara Igeri Elkarteako presidentek igeriketa defendatzeko premia azpimarratu zuen urriaren 2an emandako prentsaurrekoan: "kirola egitea defenditzen dugu, eta

horretarako igeri egiteko toki aproposa behar da. Udalak gure elkartearen eta igerilekuko erabiltzaileen iritzia kontuan izan beharko luke".

Honen aurrean zera argitu nahi izan du alkateak: "jakinekua da igerilekuaren egoera kaskarra. Berrikuntza sakon baten premia daukate, ez dutelako araudi berria betetzen eta ez dietelako erantzuten herriari dituen premiei. Beste herri batzuetako instalazioak ikusten izan gara, eta gurekin Jesus Jauregi Igeri Elkarteak kidea etorri izan da. Joan zen urtean ere bilera pare bat egin genituen ideia lehiaketa bideratzen joateko, eta Jesus Jauregi tartean izan zen. Hortaz, Igeri elkarteak prozesuaren berri izan du hasieratik".

Bestalde, Beti-Busti piraguismo taldearen arazoari dagokionez, alkateak irtenbide zaila ikusten du: "etorkizunean arazo bera izango genuke 50 metroko igerilekuarekin, arazoak Osasun sailak jartzen dituelako". Tolosan ere Bergaran proiektatzen duten igerilekuaren antzerakoa (25 metro luzerakoa eta hamar kalerakoa) egin behar dutela gaineratu zuen alkateak. Dirulaguntzei dagokienez, %40ko kopurua ez dela zuzena esan zuen Gallastegi alkateak.

Proiektua abendurako amaituko dute

Bergarako Udalak datorren urtean hasi nahi du Agorrosingo Kirolgune berriaren obrekina. Udalak deitutako lehiaketara zortzi arkitektoen lanak aurkeztu ziren, eta uda aurretik, proiektu guztiak aztertu ondoren, Alvaro Pérez de Amezaga eta Jorge Muntañola arkitektoei agindu zien proiektua idaztea. Lehiaketatik kanpo geratu ziren zazpi arkitektoei 2.800.000 pezeta ordaindu zien Udalak. Bakoitzak 400.000 pezeta jaso zituen lehiaketan parte

hartzeagatik. Udaleko iturrien arabera, Pérez de Amezagak eta Muntañolak abendurako amaituko dute proiektua. Dena dela, aurreproiektua izango da behin betiko proiektuaren oinarria. Ondoren, udalbatzaren oniritzia etorri beharko da. Dirulaguntzak lortzea ere ezinbestekoa izango da: oraindik diru kopururik aurreratu ez duten arren, Kirolgune berria izango da, zalantzarik gabe, legealdi honetako apusturik handiena.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA

| | |
|-------------------------------|------|
| Amilox-Mongatxurak | 3-10 |
| Kanpazar Harrobia-Torrekua | 4-1 |
| Bar Ganbara-A Ze Flaxa | 3-9 |
| Bar Ugarte-Amilox | 0-3 |
| Mongatxurak-Biciprec. Igartua | 4-5 |
| Eri-Komando Piperrak | 4-4 |

B MULTZOA

| | |
|------------------------------------|------|
| Bar Canalejas-Vacalouras | 10-2 |
| Amoskibar-Etengabe | 6-2 |
| Artekale pizzeria-Irubide jatetxea | 2-6 |

C MULTZOA

| | |
|-------------------------------|-----|
| Patxaran Team-Errotagain | 4-5 |
| Bildurbarek-Artusamak | 8-5 |
| Bayer-Pagomendi | 3-4 |
| Timofonika Team-Alum. Kresala | 2-3 |

SAILKAPENA

A MULTZOA

| | P | J |
|---------------------------|---|---|
| 1. A Ze Flaxa | 9 | 3 |
| 2. Agirrebeña jatetxea | 7 | 3 |
| 3. Kanpazar Harrobia | 6 | 4 |
| 4. Bar Ugarte | 6 | 4 |
| 5. Torrekua | 5 | 4 |
| 6. Komando Piperrak | 5 | 4 |
| 7. Amilox | 4 | 3 |
| 8. Eri | 4 | 4 |
| 9. Mongatxurak | 4 | 4 |
| 10. Biciprecisión Igartua | 3 | 4 |
| 11. Bar Ganbara | 0 | 3 |

B MULTZOA

| | P | J |
|----------------------|----|---|
| 1. Amoskibar | 8 | 4 |
| 2. Irubide jatetxea | 8 | 4 |
| 3. Vacalouras | 7 | 4 |
| 4. Bar Canalejas | 7 | 4 |
| 5. Aterpe | 6 | 2 |
| 6. Bar Bedarreta | 6 | 2 |
| 7. Artekale pizzeria | 3 | 4 |
| 8. T.H.T | 3 | 3 |
| 9. Etengabe | 0 | 4 |
| 10. Txipiron | -3 | 3 |

C MULTZOA

| | P | J |
|--------------------------|---|---|
| 1. Errotagain | 9 | 3 |
| 2. Dedo Pafarru | 6 | 3 |
| 3. Artusamak | 6 | 3 |
| 4. Pagomendi | 6 | 3 |
| 5. Bildurbarek Opel Lam. | 3 | 4 |
| 6. Bayer | 3 | 2 |
| 7. Patxaran Team | 3 | 3 |
| 8. Aluminios Kresala | 3 | 3 |
| 9. Timofonika Team | 0 | 3 |
| 10. Ortzil | 0 | 1 |

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Amilox-Agirrebeña. **Antolaketa**
10:30: Torrekua-Eri. **Antolaketa**
11:30: Vacalouras-Artekale. **Antolaketa**
16:00: Aterpe-Bar Bedarreta. **Ortzi**
17:00: Ortzil-Patxaran Team. **A. Kresala**
18:00: Aluminios Kresala-Bayer. **D. Pafarru**
19:00: Dedo Pafarru-Pagomendi. **Bayer**
20:00: B. Igartua-Bar Ganbara. **Pagomendi**

HOMEKAN, BARRUAN

09:30: Aterpe-Txipiron. **Antolaketa**
10:30: Kanpazar-A Ze Flaxa. **Antolaketa**
11:30: Irubide-Bar Bedarreta. **Antolaketa**
12:30: D. Pafarru-Al. Kresala. **Antolaketa**
16:00: Etengabe-Bar Canalejas. **T.H.T**
17:00: T.H.T-Amoskibar. **Bayer**
18:00: Bayer-Ortzi. **Timofonika Team**
19:00: Timofonika-Bildurbarek. **Patxaran T.**
20:00: Pagomendi-Patxaran T. **Bildurbarek**
HOMEKAN, KANPOAN
16:00: K. Piperrak-Mongatxurra. **Amoskibar**

ARGI IBILI!

EPAILEE ERRESPETOA

Epailen lana ez da batera erreza izaten Labegaraietako futbito txapelketan. Askotan jokalarien modu txarrak eta protestak jasan behar izaten dituzte, eta antolatzaileek ez dute horrelakorik nahi. Hori dela eta, epaileengan errespeturik azaltzen ez duten taldeak zigortuko dituztela adierazi du antolaketa batzordeak.

HAINBAT TALDEK BI PARTIDU IZANGO DITUZTE ASTEBUKAERAN

Oraingo astebukaeran hemezortzi partidu jokatuko dira Labegaraietan. Hainbat taldek bi partidu jokatu beharko dituzte, zapatuan bat eta domekan bestea. Aterpe, Bar Bedarreta, Dedo Pafarru, Aluminios Kresala, Bayer, Ortzil, Pagomendi eta Patxaran Team taldeek sasoi onean direla azaldu beharko dute, "lan" bikoitza izango baitute.

GORA ETA BEHERA

↑ ERROTAGAIN ETA A ZE FLAXA

Errotagain taldea izan genuen aurreko denboraldiko ligako eta kopako txapeliduna. Aurten ere hasiera ona izan dute ligan eta C multzoko liderrak ditugu. A Ze Flaxak ere jokatutako hiru partiduak irabazi ditu.

↓ MONGATXURAK, BAR GANBARA ETA TXIPIRON

Urtero Mongatxurak favoritoen artean izaten da. Hala ere, ez dabilta fin: lau partidutan lau puntu besterik ez dituzte lortu. Bar Ganbara eta Txipiron, berriz, hurrenez hurren A eta B multzoetako azken tokian dira.

GAINBEGIRADA

ATLETISMOA

Behobia Txiki herri probaren VI. ekitaldia jokatuko da datorren zapatuan

Datorren zapatuan, urriak 27, Behobia Txiki lasterketa jokatuko da, 10:30ean Agorrosinen hasita. Aurtengo ekitaldia Diego Garcaren omenez jokatuko da. Ondorengo bazkaria Iraho jatetxean egingo da. Izena ematea (1.000 pezetako depositua) jatetxean bertan egin daiteke.

PILOTA

Angiozarko Arbiaska pilotalekuko zorua konpondu dute aste honetan

Aste honetan amaitu dituzte Angiozarko Arbiaska pilotalekuko zorua konpontzeko lanak. Zorua erabat berritu dute, eta datorren astetik aurrera erabiltzeko moduan izango da pilotalekua. Ordua hartzeko interesa dutenek Kirol Zerbitzura (943 77 91 67) jo dezakete.

IGERIKETA

Igeriketa monitore ikastaroa Deba arroko Euskara eta Kirol zerbitzuen eskutik

Deba arroko Euskara eta Kirol zerbitzuek antolatuta, 16 urtetik gorakoek zuzendutako igeriketa monitore ikastaroa izango da azaroaren 16tik aurrera. Ikastaroa Oñatiko edo Elgoibarko kiroldegian egingo da. Argibideak Oñatiko Zubikoa kiroldegian, 943 71 63 75 zenbakian.

MENDIA

Mendizale guztiei zuzendutako mendi irteera Aralarra domekan, urriaren 21ean

Gorla Alpinok eta Pol-Pol Mendizale Taldeak domekan, urriaren 21ean, Aralarra eta Altsasura joateko mendi irteera antolatu dute. Irteera 07:00etan egingo da frontoitik, eta zale guztiei parte hartzeko dei egiten diete. Txartelak Pol-Pol tabernan eskura daitezke.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Billabona
Infantilak. Zapatua. 12:00. Ipintza.
Bergara-Antiguoko
Ohorezko mailako gazteak. Zapatua. 15:00. Ipintza.
Bergara-Oiartzun
Preferente maila. Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Bergara-Amaik Bat
Bigarren mailako kadeteak. Domeka. 10:00. Ipintza
Bergara-Soraluze
Lehen mailako gazteak. Domeka. 11:30. Ipintza
ESKUBALOIA
Bergara-Leitzarain
Kadete mutilak. Zapatua. 16:15. Kiroldegia.
Bergara-Hondarribia
Gazte mutilak. Zapatua. 17:45. Kiroldegia
PILOTA
Bergara-Loiolatarra (banaka)
Bergara-Azpeitia
Bigarren mailako afizionatuak. Zapatua. 12:30. Udal Pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 1 Hernani 2 (Preferente maila)
Bergara 3 Zumaia 1 (Lehen erregionala)
Bergara 1 Eibartarrak 3 (Nesak)
Bergara 4 Euskalduna 0 (Ohorezko m., gazteak)
Bergara 2 Urola 1 (Infantilak)
ESKUBALOIA
Tolosa 27 Bergara 33 (Senior mutilak)
Bergara 32 Beasain 22 (Senior mutilak)
SASKIBALOIA
Bergara 52 Ordizia 40 (Gazte mutilak)
Bergara 30 Ordizia 83 (Kadete mutilak)
PILOTA
Altza 22 Bergara 11 (Lehen mailako seniorrak)
S. Esteban 22 Bergara 16 (Bigarren m., seniorrak)
Bergara 19 Tolosa 22 (Kadeteak)

JOKOZKANPO

Iñigo Zaitegi

BKEKO PRESIDENTEA

Iñigo Zaitegi 1993tik 1999ra bitartean izan zen BKEko presidente. Orain, "Piti" Unamunoren ordez, kargua hartu du berriz.

Zerk bultzatu zaitu berriz presidente izatera? "Piti"rekin presidenteordea nintzen, eta hark dimisioa aurkeztu ostean katearen hurrengoa neu nintzen. Oraingo, denboraldia amaitu bitartean egongo naiz. Gero, beste norbaitek erreleboa hartzea litzateke logikoena. Zuzendaritzan ibilitako guztiei eskerrak eman nahi diet.

Zein da taldearen egoera ekonomikoa?

Nahi baino txarragoa. Hori da okerrena, beti diru eske ibili behar izatea. Bestela, mutikoein ibiltzea esker-garria da oso. Berrehun bat lagun ari gara futboleant (zortzi talde dira guztira) eta 21 milioi inguruko aurrekontua dugu. Aurten, espero ez genituen gastu batzuk izan ditugu, Barrenkaleko lokaleko fatxadan eta tabernan obrak egin behar izan dituztelako.

Zein da aurtengo helburua?

Herrian kirola bultzatu, harrobia landu eta ahalegina egin preferenteko taldea hirugarren mailara igotzeko. Zorte pixka batekin aurrean egon gaitzke.

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

SANTOS

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. **BERGARA**
Tf. 943 76 26 10

Mugen Gaietik GKEren erakusketa hilaren 23tik azaroaren 4ra arte

Lurrikarek El Salvadorren eragindako hondamendia argazkitan Kultura Etxean

MONIKA BELASTEGI

Urtarrilean eta otsailean El Salvadorren izandako lurrikaren ondorioak argazkitan bildu ditu Mugen Gaietik Gobernu Kanpoko Erakundeak. Orain, erakusketa ibiltari baten bidez, hondamendiaren berri ematen dihardu. Urriaren 23tik azaroaren 4ra egongo da zabalik.

Aurtengo urtarrilaren 13an eta otsailaren 13an El Salvadorren gertatutako lurrikarek sortu zuten hondamendiari buruzko argazki erakusketa irekiko dute datorren martitzenean, hilak 23, Kultura Etxean.

Erakusketa hori Mugen Gaietik Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatu du.

Erakusketako irudiek El Salvadorren zehar ibilaldia egiteko aukera eskainiko dute. Hamabi urte gerran egon eta burua altxatzen hasita zegoen El Salvadorren irudiak aurkituko ditugu bertan. Baina, batez ere, urtarrilean eta otsailean izandako lurrikaren osteko El Salvadorreko irudiak. Irudiok agerian utziko dute, horrelako fenomeno naturalak herrialde batzuetan anekdota edo pasadizo hutsak diren bezala, beste batzuetan benetako hondamendia izaten direla. Horrelaxe azaldu digute Mugen Gaietik erakundeak kideek: "El Salvador plaka tektonikoen gainean dago. Hori horrela, lurrikarak izateko toki aproposa da. Beste herrialde garatuago batzuk ere egoera berean daude, baina ezberdintasun nagusi bat dute, diru gehiago dutenez, eraikinak ere horretara egokituta izatea. Ondorioz, lurrikaren eragina askoz txikiagoa da".

EL SALVADOR BERROGEITA BEDERATZI ARGAZKITAN BILDUTA

Erakusketa berrogeita bederatzitik argazkik osatzen dute. Baina argazkien euskarria ez da ohiko papera izango, mihisea, baizik, koadroak izango balira bezala. Guztiak Mugen Gaietik erakundeak hainbat kidek egindakoak dira; gehienak dena den,



MUGEN GAIETIK

Erakusketa datorren martitzenean, hilak 23, irekiko dute, eta azaroaren 4ra arte egongo da zabalik.

Sebe Zubiri taldeko kidearenak. Erakusketako argazkiak, esan bezala, El Salvadorren zeharreko bidaia bat dira. Gerra ostean loratzen hasitako El Salvadorrena, eta batez ere, lurrikaren osteko El Salvadorrena.

Erakusketa, urriaren 23an inauguratuko dute, 19:00etan, eta azaroaren 4ra arte egongo da zabalik Kultura Etxeko ohiko ordutegian: asteleheneetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara, eta zapatu eta jai egunetan, 12:00eta-

tik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Erakusketaren inaugurazio ekitaldian, Sebe Zubiri Mugen Gaietik GKEko kideak hitzaldia eskainiko du lurrikaren ondorioei eta El Salvadorren egoera orokorrari buruz.

Mila eta berrehundik gora lagun hilda

Aurten gertatu ziren bi lurrikarak El Salvadorren. Biak hilabete baten barruan: urtarrilaren 13an, 11:35ean lehenengoa, eta otsailaren 13an, 8:35ean bigarrena. Batak zein besteak Erdialdeko Amerika osoan eragin bazuten ere, El Salvador izan zen gehien igarri zituen herrialdea: 1.582.428 kaltetu izan ziren, 1.200 hildako baino gehiago, 8.122 zauritu, 300.000 etxebizitzek kalteak jasan zituzten, eta 149.528 gurtiz sunsituta geratu ziren.

CEPALek (Latinoamerikarako Ekonomia Batzordea) egindako estimazioaren arabera, lehenengo lurrikararen eragin sozioekonomikoa 1.231,8 bilioi dolarrekoa izan zen. Kopuru hori El Salvadorreko Barne Produktu Gordinaren 7,5ari dago-kio, eta kaltetuenak sektore sozialak eta ekoizleak izan ziren.

Bigarren lurrikarak eragindako galerak horren handiak izan ez arren, lehenengoaren kalteari gehitu zitzaizkion.

Aukeran dantza konpainiaren *Sutargi* lana, gaur, udal pilotalekuan

MONIKA BELASTEGI

Aukeran, Edu Muruamendiaraz dantzari bergararren dantza konpainiak *Sutargi* azken lana eskainiko du gaur, egubakoitza, 22:00etan, udal pilotalekuan.

Sutargi ohiko dantzaren eta musikaren ikuspegi garaikidea da. Suaren inguruan dantzatu-tako akelarre batean hasiko da ikuskizuna, eta argia dantzatu arteko bilakaera izango du. *Sutargi* suaren distiratik izarren argirainoko bidea da.

EDU MURUAMENDIARAZ ETA AUKERAN

1997.ean sortu zuen Muruamendiarazek Aukeran. Ordutik, berrikuntzetarako gogoia erakutsi du, eta koreografiak egiteko garaian aitzindaria izan da. Lan hauek egin dituzte *Sutargi*ren aurretik: *Aukeran*, *Akilimarro*, *Errenkan* eta *Zirga*-ezean.

KULTURAPILULAK

Pintura erakusketa Kultura Etxean

Jesus Elorza Aranaren pintura lanak ikusgai daude Kultura Etxean domekara arte. Ordutegia: asteleheneetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara, eta larunbat eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertua

Domekan, 12:30ean, udal pilotalekuan. Sei obra eskainiko ditu: Jef Penders-en "La primitiva" pasodoblea; M. Gonzalez-en "Suite Hebraica"; J. Pachecoren "Entre flores" Andaluziako dantza; H. Kolditz-en "Bella Italia" Italiako doinuak. Fr. Von Suppé-ren "Flotte Bursche" obertura, eta V. Menti-ren "Czardas" obra.

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

Ion Murgizu

Orotariko pintura
Iztukuak
Papereztatzeak
Imitazioak

Esozia etorbidea 24, 2. behea
SORALUZE
943 75 13 24 / 652 777 030
iiion@euskalnet.net



Matxiategi
Elektragintza
S.L.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

Radio Bergara

Etzetresna elektrikoak
Sakelako telefonoak
Lanparak
Opariak

San Pedro 25
BERGARA
943 76 19 89

E, TXO!

AUTOBUSAK ZAPATU GAUETARAKO

Zapatu gauetarako autobus zerbitzu berezia jarri berri du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Inguruko herrietara joateko beste aukera bat daukagu orain, autoa hartu barik. Eskoriatza eta Eibar batuko dituen autobus zerbitzua izango dugu, eta Bergaran ere izango du geralekua. Lehendabiziko autobusa gauerdian irtengo da bi herrietatik, eta azkena goizaldeko 06:00etan. Ordu eta erdiro irtengo dira autobusok. Oraingo, bost hilabetez jardungo du autobus berezi horrek, baina arrakasta izanez gero, Diputazioak aurrera jarraituko du zerbitzu horrekin.

'GAZTETXULO'K URTEBETE

Euskal Herriko gazteen hilabetekari honek urtebete egin du dagoeneko. 2000ko urriaren kalera zuten lehendabiziko alea, eta urriaren 5ean kaleratu berri dute hamabigarrena. Azken ale horretan, ohiko ildoari jarraituta, sexua, musika eta gazteekin lotutako hainbat gai landu dituzte, eta Estatu Batuetako erasoak direla eta, gertaeren gainean hainbat hausnarketa eta ikuspegi batzen dituen artikulua da gai nagusia.

GAZTEON TXOKOA

Horixe da, hain zuzen ere, oraingo astean estreinatu dugun orrialde honek izan nahi duena: gazteon txokoa. Ez da gure txokoa, ez da gure saila, zuen saila baizik, gazteona. Horregatik, gai jakin baten gaineko informazioa interesatzen bazazue, gazteendako ekitaldiaren baten berri eman nahi baduzue, edo bestelako proposamenen bat baldin badaukazue, hemen gauzkazue entzuteko prest.

GUREGAIK/ GAZTETXEKO ZINEMA ESKAINTZA

Zinemaz gozatzeko beste aukera bat, gaztetxeak antolatuta

AINTZANE IRIZAR

Gaztetxeak zinema emanaldiak antolatu ditu aurtengo ikasterako. Urriaren 3an eman zuten lehen filma, eta urte osoan eskaintza honekin jarraitzeko asmoa dute. Eguaztenero, 22:30ean.


Ekitaldi ugari antolatzen ditu gaztetxeak. Dena dela, askotan gertatzen da kontzertuek izaten dutela oihartzun handiena, eta bestelako ekitaldiak bigarren mailan geratzen direla.

Zinema emanaldiekin horrelakorik ez gertatzeko ahalegina egingo dugu. Kontuan hartu behar dugu eguaztenero film bat eskaintzeko gaztetxeok egin duten esfortzua.

Eguazten gauero, 22:30ean, izango dugu film bat ikusteko aukera gaztetxean

EGUAZTEN GAUEROKO HITZORDUA

Eguaztenero izango da asteroko hitzordua, gaztetxean bertan, gaueko 22:30ean. Esan bezala, urriaren 3an eskaini zuten lehen filma. Hurrengoa urriaren 24an eskainiko dute: *El impostor*, hain zuzen ere; eta urriaren 31n, *Chacal*. Film horien inguruan infor-



El impostor filmaren kartela.

mazio gehiago nahi baldin baduzue, herriko hainbat tabernatan filmei buruzko esku-orriak dau-

de. Azkenik, gogoan izan doan izango direla emanaldi horiek guztiak.

LOTSABARIK/ Enaitz Alustiza

"Gurasoei 'pelota' egitea taktika ona da"

AINTZANE IRIZAR

Oso mutil saltseroa da uberar hau: bertsolaria da, orfeoian abesten du... Horrenbeste saltsatan sartuta, normala despistatuta ibiltzea. Anduri baserrian bizi da, eta musika da bere zaletasun handiena.

• Txikitán, zer izan nahi zenuen?

Sukaldaria, ondo akordatzen naiz.

• Hemendik hoge urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Orain bezala, baserrian bizi-tzen, eta seme-alabekin; eta orfeoian kantatzen jarraituko dut.

• Gurasoek zer errepikatzen

dizute behin eta berriz?

Oso desordenatua naizela. Eta egia da.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat?

"Pelota" egitea. Etxean pixka bat lagundu... bakoitzak bere taktikekin, baina "pelota" sartuta.

• Bizitzan, zeri ematen diozu lehentasuna?

Momentu honetan, ikasketei.

• Zure bertute bat?

Ez dakit bertutea den, baina saltseroa naizela, alde guztietan muturra sartzea gustatzen zait.

• Eta gabezia bat?

Gauzak apuntatzen ez baditut, ahaztu egiten zaizkit. Agenda bat daukat eta agenda barik... agindutako erdiak ez nituzke egingo,

oso despistatua naiz.

• Zerk amorratzen zaitu?

Telebistan nire saio gogokoena ikusten ari naizela, seinalea joan eta ezin ikusi ahal izateak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Hanketako bolak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Aurpegiari, begiradari.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez; ni naizen modukoa naiz, eta seduzitzen badut, ez da izango nik ezer berezirik egin dudalako.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Fantasia gehiegi dauzkat hemen laburtzeko.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko bigarren maila • ZALETASUNAK: Musika eta kantatzea • LIBURU BAT: 'Behi euskaldun baten memoriak' (Bernardo Atxaga) • FILM BAT: 'El silencio de los corderos' • MUSIKA TALDEA: Skalariak • KIROL TALDEA: Tau Ceramica


Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz

Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA



ARRAÑAGA


A U T O E S K O L A

iRUDI

Erloju denda
Bitxitegia

Ibargarai, 2
BERGARA
943 76 51 65

ZAHARREN ETXETIK



ARTXIBOA

Erretiratuen kasuan, emakumeek azaltzen dute interes handiena partaidetzarako.

Nagusien partaidetza aztergai erretiratuen Kultur Hamabostaldian

EDU MENDIBIL

Erretiratuen Kultur Hamabostaldiarekin jarraituz, Merce Pérez Salanovak, Bartzelonako Diputazioan Europako SERDOM proiektuaren zuzendariak, *El reto de la participación* izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean, Miguel Altuna institutuan, 19:30ean. Eguaztenean, berriz, gaiaren inguruko mahai-ingurua izango da ordu eta leku berean.

Merce Pérez Salanovak erretiratuen partaidetzari buruzko hitzaldia egingo du. Haren, uste-tan, partaidetzaren erronkak bi alde ditu nagusien kasuan: "Bate-tik, herritar guztiei eragiten dieten gaietan parte hartzeko ahalmena izan beharko lukete, eta bestetik, hobe da eurei hurbilago geratzen zaizkien ekintzetan zentratzen badira, auzo mailan edo herri mailan".

Pérez Salanovak erretiratuen partaidetzaren garrantzia azpimarratzen du, "gure gizartea

zahartzarora egokitzeko ezinbestekoa delako zaharren partaidetza. Partaidetzaren balioak kontuan hartzekoak dira, baita zein baldintzatan bultzatzen den

partaidetza hori ere. Oraindik ere jende askok partaidetzarako lotsa dauka, eta nik Bartzelonan izandako esperientzien berri emango dut".

MAHAI-INGURUA

Eguaztenean, hilaren 24an, *Participación, ¿palabra o realidad* izenburuko mahai-ingurua izango da, Miguel Altunako aretoan, 19:30ean. Merce Pérez Salanova bera izango da moderatzailea, eta harekin batera honakoak izango dira: Maximo Goikoetxea Gizartekintzako diputatua, Jose Antonio Agirre Matia Fundazioko gerentea, Miguel Calvillo Goierriko Eskualdeko Nagusien Kontseiluko kidea eta Jose Maria Sarasua Hiruatx gobernuz kanpoko erakundeko kidea.

Bestalde, egubakoitzean, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean deitutako idazlan lehiaketaren sari banaketa egingo da Novedades aretoan, 19:00etan. Sariak banatu ondoren, Bergarako Orfeo Gaztearen eta Antzuolako Txistulari Taldearen saioa izango da.



Mercé Pérez

Psikologoa (Bartzelona, 1947)

Psikologian lizentziatu zen 1974an. Bartzelonako Diputazioan ari da lanean. 1988tik Ongizate Kontseiluko "Pertsona nagusiak" lantaldeko koordinatzailea. Hainbat lan argitaratu ditu.

LABUR

San Joxepe elkartearen 'Hobetzen' aldizkariaren laugarren alea azaroan kalean

San Joxepeko lagunek *Hobetzen* aldizkariaren laugarren alea prestatzen dihardute. *Hobetzen* aldizkaria hiruhilabetekaria da, eta azaroko alean, V. Kultur Hamabostaldiko gaiak jorratuko dituzte. Aldizkariak 12 orrialde ditu, eta 300 ale inguruko tirada dauka. Doan izan arren, San Joxepe elkarteak, sinbolikoki, 100 pezeta eskatu dizkie aldizkaria jasotzen dutenei.

Datorren egunean, arratsaldean, hainbat bizilagunen omenezko jaia Mizpirualden

Ohizkoa denez, Mizpirualdeko bizilagunek urrian urteak egin dituztenen omenezko jaia izango dute datorren egunean, urriaren 25ean, 16:30etik aurrera. Urrian 14 lagunek bete dituzte urteak Mizpirualden. Egunean, merienda egingo dute guztiek elkarrekin, eta jarraian dantzaldia eta opari banaketa iragarri dituzte.

Kultur Hamabostaldiaren amaiera ekitaldia eta bazkaria urriaren 27an

Datorren zapatuan, urriaren 27an, Kultur Hamabostaldiaren amaiera ekitaldia egingo dute Miguel Altuna institutuan, 12:30ean. Hantxe, Antzuolako eta Bergarako alkateak eta San Joxepeko zuzendaritza batzordeko kideak izango dira. Ekitaldiaren ondoren, herri bazkaria izango da Zabalotegiko frontoian, 14:30ean. Bazkarirako txartelak (3.500 pezeta) San Joxepe elkartearen daude salgai.

ZAHARREN AHOTIK

Mari Díez

MIZPIRUALDEKO BIZILAGUNA

1982 urtea ezkerro Mizpirualdeko erresidentzian. "La rusa" ezizenarekin ezagutzen dute, 42 urte eman zituelako Errusian, 1937tik 1979ra.

Zelakoak izan ziren Errusian igarotako urteak?

Errusiarrek primeran hartu gintuzten. Neska-mutikoak ginela iritsi ginen hara, eta gerra bizi izan genuen arren, oso oroitzapen onak ditut.

Erretiratu arte han egin zenuen lan?

Bai, hegazkintza fabrika bateko bulego teknikoan. Erretiratu eta Bergarara etorri nintzen.

Mizpirualde asko aldatu da zu sartu zinenetik hona?

Bai, erresidentzia oso ondo dago, eta orain lehen baino buruko gaixo gehiago daude-



la esango nuke. Ni beteranoe-tako bat naiz; nirekin sartu ziren asko hil egin dira dagoeneko.

Zer egitea gustatzen zaizu?

Arratsaldetan, San Antonioko nire haurtzaroko lagunekin elkartu eta Gabiriara joaten gara. Bestela, telebista ikusten egoten naiz hemen.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala) 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOYEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1, behea. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
LASKURAIN HORTZ KLINIKA Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera aproposak hartzeko heziketa). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMIOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

GINEKOLOGOA

- SERRANO Jose Ramon** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43
BELASTEGI Mariasun Agorrosingo igerilekuak. 943 76 02 03
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- ALTUBE Eduarne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- JOKABIDEAREN PSIKOLOGIAKO KABINETEA** (Azterketa psikologikoa). 943 76 59 39
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotritzitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

SEXOLOGOAK

- OIARZUN Ana** Errebal 12, 2 esk., EIBAR. 943 70 24 46

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.



BERGARA
Markel Barrocal
20an urtebete. Urte askotarako! Etxekoak, Ainhoa, Josu eta Nuria.



BERGARA
Mikel Arkauz
22an 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak; bereziki, Ainhoa.



BERGARA
Andres Alzelai
23an 76 urte. Urte askotarako! Familiakoak, Oihana eta Amaia.



BERGARA
Maitane Arteaga
19an 8 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Alex.



BERGARA
Maialen Rodriguez
25ean urtebete. Urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Ander Arruti
23an 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Monika Alberdi
23an 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Judith Sagasta
23an 4 urte. Urte askotarako! Gurasoak, Josu eta Julen.



BERGARA
Nuria Sainz
25ean 11 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Ainhoa.



BERGARA
Josu Ugarte
19an 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak.

BABESLEA



Zatoz zure urtebetetzeko merienda egitera! JOLASAK DOAN!

Amillaga 1ean gaude. Telefonoa 943 76 94 52

Adi!

Hurrengo zenbakian, urriaren 26tik azaroaren 8ra bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.


Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak BERRIGARAREN bidez!
Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra!
Irizar jauregian gaituzu: Barrenkalea 33.

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik itzuliko dizugu, zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Bergarako ze etxeren maketa jarri dute aurtengo udan Donostiako Zientzia Museoaren aurrean?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Likidanbarra

Liquidambar styraciflua

MAITANE ARIZABAETA

A Itueran 45 metro har ditzakeen kopa konikoko zuhaitz hosto erorkorra. Enborra zuzena eta zartatua du, gris kolorekoa. Hostoek txorten luzexka eta forma palmatua dute, eta horztunak dira. Udazkenean, tonu ikusgarriak hartzen dituzte, gorri laranjatik purpurara doazenak. Maiatzean loratzen da, eta fruitua, 2,5 cm-ko kapsula biribil puntaduna, udazken aldera heltzen da.

Likidanbarra, jatorriz, Ertamerika eta Ipar Amerikako ekialdekoa da, eta zurgintzan oso estimatua da. Europara XVII. mendean ekarri zuten, espezie apaingarri gisa.

Zoru mota guztietan hazten da zuhaitz hau, karedunetan izan ezik. Lehorteak, sakonera gutxiko lurra eta leku txikiak ondo ez toleratu arren, gure herriko kaleetan sarritan ikusten den espeziea da. Bergaran, Irala kalean, Usondon edo Errekalden ikus ditzakegu. Bestalde, Ibargarain, "zezen plaza"ren inguruan, espezie honetako ale ikusgarri bat zegoen.

Azala irakin eta prentsaturaz gero, ateratzen den erretxina (Peruko baltzamo) oso estimatua da medikuntzan eta lurrigintzan.

"Udazkenean, oso tonu ikusgarriak hartzen ditu, laranjatik purpurara doazenak"



EDU MENDIBIL

GALDEDEBALDE

1.

Ze ermitaren aztarnak aurkitzeko egin dituzte indusketak Osintxun?

- A/ San Emeterio eta San Anton Abat.
- B/ San Eleuterio eta San Zeledonio.
- C/ San Emeterio eta San Zeledonio.

2.

Zenbat argazki egongo dira Mugen Gaietik erakundeak antolatu duen erakusketan?

- A/ Berrogeita bederatzia.
- B/ Berrogeita zazpi.
- C/ Ehun eta hamabi.

3.

Zein da Bergara Kirol Elkarteko presidentea berria, "Piti" Unamunoren partez?

- A/ Carlos Arnaiz.
- B/ Iñigo Zaitegi.
- C/ Juanina Garai.



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketabonua zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

FELISA GABILONDOrentzat izan da 5.000 pezetako erosketabonua.

Zorionak Felisari!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Elurtxiki / Galde debalde: 1-A, 2-A, 3-A.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela EGUAZTEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Frias esnea

Osoa, litro bateko brika.

0.53 €

89 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!




INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93



ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

ezpeleta
Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09



IRRINTZI kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 201eko urriaren 19a / 87. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 2570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Umeei ipuinak zelan kontatu ikasteko aukera Virginia Imazen eskutik

AINZANE IRIZAR

Hiru zapatutan eskainiko du Virginia Imaz bergararrak ipuinak zelan kontatu ikasteko ikastaroa. Azaroaren 17an eta 24an, eta abenduaren 15ean izango da ikastaro hori. Guraso, zaintzaile edo interesa duen edonori zuzenduta dago ikastaroa.

Umeei ipuinak zelan kontatu ikasi ahal izango duzue Antzuolako Udalak antolatu duen ikastaro honetan. Virginia Imaz bergararrak eskainiko du ikastaro hori.

Virginiaren esanetan, "guk ez dugu bereizketarik egiten, ipuinak edozeinendako dira; umeendako oso garrantzitsuak dira ipuinak, baina guztiok daukagu ipuinen beharra".

Antzuolan eskainiko duen ikastaro hau, baina, umeei ipuinak kontatzeko ikastaroa da. Imazek azaldu digunez, denok, ume eta nagusi, daukagun arren ipuinen beharra, "umeen kasuan, oso paper garrantzitsua betetzen dute: imaginazioa lantzeko eta beldurri aurre egiten ikasteko elementu guztiz beharrezkoak dira ipuinak".



ARTXIBOA

Ume eta nagusien artean komunikazio zuzena sortzen da ipuinak kontatzerakoan.

ZELAN KONTATU IPUIN BAT

Virginiaren esanetan, naturaltasuna da ipuinak kontatzerako orduan, garrantzitsuena. Ez da aditu bat izan behar ipuinak kon-

tatzeko. Nahikoa da ipuinek umearen bizitzan duten garrantzia ohartu, eta gogoz, interesez egitea kontakizuna. Bakoitzak bere errekurtsuak izango ditu (kei-

nuak, abestiak...), baina oinarrikoena naturaltasuna da.

KOMUNIKAZIOAREN GARRANTZIA

Horixe da, hain zuzen ere, Virgi-

"Umeei beharrezko dituzte ipuinak, oso paper garrantzitsua betetzen dute umeen bizitzan"

niak behin eta berriz errepikatzen duena. Ume eta nagusien artean komunikazio zuzena sortzen da ipuinak kontatzerakoan. Umeak gertu sentitzen du ipuina kontatzen diona, eta harreman afektiboa sendotzen laguntzen du. Entzuten duenaren arabera, gainera, bere buruan irudiak imajinatzen ditu umeak; "imaginazioaren gimnasioa" bihurtzen da momentu hori umearentzat.

AHOZKOTASUNAREN ETORKIZUNA

Virginia baikor azaldu da etorkizunari begira. Azkenaldian ipuinen kontakizuna bultzatzeko inizatiba asko sortu da bere ustez, eta hori poztekoa da. Antzuolako Udalaren ekimena ere oso positibotzat jo du, eta hainbat ikastetxe eta gurasoren ahalegina ere azpimarratu nahi izan ditu.

HERRITARREN HITZA / Beñardo Kortabarria • Kazetaria

Jubilatuei kendu eta gazteei eman

Jubilatuek badute behin-behineko lokala; gazteek, aldiz, ez. Udalak gazteei jarri behar zien lokala, ez jubilatuei. Jubilatuak lokal barik egon diren egunetan, gaur taberna batean bihar bestean ibili dira. Tabernendako -eta hauen ohiko bezeroendako- haize freskoa izan dira, batez ere astegunetako bazkal osteko tarte erdi-hil horietan. Karta-jokoan, berbetan edo kafesnea hartzen, egunero hor egon dira. Ondoan jarri eta gazteagoekin berriketaldiren bat edo beste egiteko aukera izan dute, tentsio altua ahaztu eta bestelako gaiez berba

egiteko... eta gazteagoek ere, telebista begiratu edo egunkariko orrialdeak pasatu beharrean, barra ondoko zaharragoak izan dituzte berba-lagun.

"Lokaletik ateratzea nahi izanez gero, badute ateratzea" esango du norbaitek. Ez diet arrazoirik kenduko, baina -ez gaitzen engaina- jubilatuek oro har, poltsikoari dezente begiratzen diote, eta beren lokalean seguru kafea merkeago hartzen dutela.



"Gaztetxea itxi zenetik, Mox-en daude gazteak"

Hortaz, jubilatuak lokal batean sartzeko dirua gastatzea baino, ez litzateke hobe gainerako tabernatan prezio bereziak jartzea?

Gazteak, berriz, gaztetxea itxi zenetik Mox-en daude, erdialderantz pintxo-premia dutenean baino ez dira azaltzen. Euren giroan daude eta, horrela egon nahi badute, egon daitezela. Gaztetxea zutenean, berdin egiten zuten, kalera irteten ez. Dena den, gurasoak

lasai egon! barruan egote hori, tratua bakarrik lagunekin izan behar hori denborarekin konpontzen da, eta ez du kalterik eragiten.

Portzieto, gazteek ari garenez. Gauez parrandan ibiltzeko -arriku barik mozortu ahal izateko- autobusak jarri dituzte bailaran. Bailara osoan? Ez, Antzuola, Gatzaga eta Elgetako gazteek -herri txikienetakoek- ezingo dituzte autobusok hartu. Gero, Madrilgo zentralismoaz hitz egiten da Euskal Herrian, eta Donostiako Goienan, herri txikietako Arrasate edo Bergarakoaz hitz egiten hasi beharko dugu?

LABUR

Erretiratuei zuzendutako ikastaroak

Antzuolako Udalak erretiratuetarako internet eta informatika ikastaroak antolatzen ditu. Horretarako, baina, zenbat jende prest egongo litzatekeen jakin nahi du.

Beraz, ikastaro hauetan parte hartu nahi izanez gero, udaletxean bertan eman behar duzue izena, datorren eguztean, urriaren 24a, baino lehen. Ikastaroa noiz izango den eta zein ordutegi izango duen ez dute oraindik erabaki Udaleko arduradunek.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA/LARRIALDIK

| | |
|----------------|--------------|
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Medikua | 943 76 62 23 |
| Praktikantea | 943 76 63 80 |
| Udaltzaingoa | 943 76 62 46 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |

UDALA

| | |
|-------------|--------------|
| Udaletxea | 943 76 62 46 |
| Kultura | 943 76 64 80 |
| Liburutegia | 943 76 60 65 |

BESTELAKOAK

| | |
|---------------------------|--------------|
| Idolaz | 943 78 60 12 |
| Herririkastetxea | 943 76 62 68 |
| Jubilatuak elkartea | 943 76 62 71 |
| Abadetxea | 943 76 64 16 |
| Anelkar (Kontxi) | 943 78 70 65 |
| Taxiak: Antonio Fernández | 669 15 65 40 |
| Jesus M. Fernández | 607 31 85 60 |

MEZAK

ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapatuetan: 19:30
Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

OHARRAK

ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU

Bergarako edizioan, 22. orrialdeko *Irudiak* sailean, Bergara, Antzuola eta Elgetako erretratu zaharrak jaso nahi ditugu. Erretratu zaharrik baldin badaukazue, eskertuko genizueke *Kontuolako* Bergarako erredakziora ekartzea, edo telefonoz deitzea, 943 76 03 97 zenbakira.

'SUTARGI' IKUSTERA JOATEKO AUTOBUSA

Gaur, egubakoitza, gaueko 22:00etan, Aukeran taldeak *Sutargi* ikuskizuna eskainiko du Bergarako frontoian. Ikuskizun hau Bergarako eta Antzuolako erretiratuen elkarteek antolatuta dute, hamabostaldi kulturalaren barruan. Joan nahi dute nentzat autobusa egongo da; gaueko 21:00etan irtengo da plazatik. Martin eta Altzarte okindegietan eta Itzar liburu dendan eman daiteke izena, eta txartelak erosi (800 pezeta).

BASERRIZBASERRI/ Galartza



AUZOKO BURUAK Baserri honen lehen aipamena 1307. urtekoa da. Garai hartan, Galartzako Garcia Iohan bizi zen hantxe. Galartzako auzotarren buru izan zen baserri eta sendi honek Antzuolako herriarekin elkartu baino, Bergararekin bat egiteko borrokatu zuen. Izen handiko pertsonaiak izatera iritsi ziren Galartzako belaunaldiko sendiak; besteak beste, Inkisizioko eta erregearen idazkariak, Lepantoko borrokaldian hildakoak... Badago besteren bat, XVI. mendean, esklaboren baten jabe ere izan zena. Bi etxebizitzako baserria da, baina, gaur egun, etxebizitza bakarrean Francisco Javier Gaztañaga eta Lourdes Fernández bizi dira, bi seme alabarekin, Xabier eta Amaia. /IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

BOTEPRONTOAN/ Aitziber Gezalaga · Trikitilaria

“Nahixago dittut kalejirak erromerixak baiño, jende gehixago animatzen da dantza egittera”

Zeiñek ez dau ezagutzen Aitziber? Zeiñek ez dau ikusi Ibon anaiakin batera panderua jotzen? 23 urte dauka Aitziberrek, eta irakaskaria da. Oraingo astian bertan hasi da lanian Santurtzin.

Noiz hasi ziñan panderua jotzen?
Hamar bat urtekin. Valentín Aperribaik erakutsi zoztan. Anaiak soiñua jotzen zeban, eta tentaziñua emun zoztan. Nik panderua ikasi nahi neban.
Anaia eta bixok beti elkarrekin ibiltzen zarete. Ondo konponduko zarete, ezta?
Bueno, ez pentsau, e? Eukitzen dittugu geure gauzatxuak be. Baiña bai, egixa esan, ondo konpontzen gara. Biherko,

gaiñera, ondo konpondu, bestela, a ze plana!
Gezalaga anai-arreben diskua, noizko?
Ja ez dot uste holakorik ikusiko dozuenik. Bixok gabitz lanian, eta gero eta denbora laburragoa daukagu jotzeko.
Kalejiria ala erromerixia nahixago?
Gaur egunian, kalejiria aukeratu neuke. Erromerixiak ez die lehengo modukuak. Kalejiran dantzan egittera jende gehixago animatzen da.
Zeuri gustatzen jatzu dantza egittia?
Bai, asko gustatzen jat.
Musika talde bat?
Idi Bihotz asko gustatzen jat.
Ze falta da Antzuolan?
Zapatu gabetako anbientia.



A, eta aparkamentuak. Errekalden, behintzet, falta die.
Eta zer dago sobran?
Txismorro batzuk, noizian behin, besterik ez.
Zein miresten dozu?
Lagun berezi hori.
Zela definituko ziñuke zeure burua?
Neska alaixa naiz, eta jendiak holaxe ikusten nau. Baiña, nahiz eta triste egon, ez dot demostratzen. Eta jendiakin, lagunekin, egotia asko gustatzen jat.
Bestiengan zer da gehixen apreziatzen dozuna?
Neregatik arduratzia eta arduratzen diala demostratzia.
Amets bat?
Orain, momentuan, biaje bat egittia, Parisera, adibidez.

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kuxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

GoRoSTi Taberna

943 76 62 96
Zurrategi plaza
ANTZUOLA

LARREA TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Igor eta Txomin



Margoak
orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2001eko urriaren 19a / 72. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 2570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Kiroldegia zabaltzeko eguna atzeratuta, tabernako berritze lanak direla eta

OXEL EROSTARBE

Aurreko barikuan ziren zabaltzeko kiroldegia. Uste baino aldaketa gehiago egin behar izan dituzte eta irekitze eguna atzeratu egin dute berriro. Ziurra ez bada ere, hil bukaerarako, taberna eta kiroldegia funtzionamenduan egotea espero da.

Aurreko barikuan ziren irekitzekoak kiroldegiko taberna, baina atzeratu egin da bertan egiten ari diren berritze lanak direla eta.

Kiroldegiko tabernan egiten ari diren berrikuntzen artean garrantzitsuenak, sukaldea berritzea eta taberna guztia margotzea dira. Ugazaba berriek itxura berria eman nahi diote tabernari.

Aipatu beharrekoa da, oraindik Udalak eta kiroldegiko taberna ustiatzeko prest zeuden lagunak ez dutela uzte kontratua sinatu. Udala kontratua gertatzen ari da, kiroldegiaren ardura hartu nahi dutenak enpresa bezala eratzten diren bitartean. Antza denez, datorren astean emanketa kontratua sinatzen saiatuko dira bi aldeak.



Gimnasioan berogailuak ipintzen diharduten arren, kiroldegiko gutxieneko zerbitzuek aurrera jarraituko dute

BEROGAILUAK ALDAGELA ETA GIMNASIOAN
Tabernan egiten ari diren berrikuntzak, ez dira polikiroldegian egiten ari diren bakarrak. Aldageletan eta gimnasioan berogai-

lua jartzeko lanetan ere badihardute. Berogailu hauek, neguan hotzaz babestu eta bertan pilotzen zen hezetasuna eragozteko balio dute. Udan tenperatura ego-

kitzeko erabiliko dira. Aldagela bakoitzean aerotomo bat jarriko dute, eta gimnasioan bi. Udalak 1.250.000 pezeta izendatuak ditu aurrekontuetan honetarako.

Berritze lan guztiak hil amaierarako bukatuta egotea espero dute

Udalak eta kiroldegia hartzeko prest daudenek ez dute oraindik uzte kontratua sinatu

Aldageletan eta gimnasioan berogailu berriak jartzeko lanetan ere badihardute

HERRITARREN HITZA / Iban Arantzabal • Goibeko KEko arduraduna

Gaztetxiak jubilauentzako

Aurreko Goienkarixan Javier Elzo soziologia katedradunaren berbatan: "Erretiratuen Egoitzekin eta Gaztetxeekin kritikoa naiz, adin bereko pertsonak elkartzen dira, baina gizartetik isolatuz".

Hein handi batian berakin ados nago.

Erretiratuen Egoitzak dirala eta, ez neuke nahi edadetu guztiak trapu zaharrak egoten diran moduan ikustia baztar baten, danak batu-batu egindda. Aukera hobia dago Ozkarbi moduko elkarte baten gazte eta ez hain gaztiak gutxienez plater baten aurrian

batera jarduteko.

Gaztetxiak dirala eta, ezagutu dittugu Gaztetxiak herrira zabaltzen ziranak be, baiña uste dot, azken aldixan, ez dala horren aldeko joerarik ikusten.

Çure herriko Gaztetxekeo batzarkidien kartia irakurtzia besterik ez dago azkenengo Goibekokalen.: "Asentzio eguna antolatzeak Gaztetxeari dagozkion beste ekintza batzuetan pentsatzeko denborarik ez digu uzten"... Eta



"Belaunaldi artian hartu-emona egotia garrantzitsua da"

tsuenen artian egon bihar dala belaunaldixen arteko hartu-emona sendotzia. Penia litzake nagusixaguak diranekin

arrazoirik ez dabe falta, lan haundixa egin bihar da-eta, baiña zeintzuk dira Gaztetxe baten helburuak ba?

Ez neuke gura Gaztetxekuei zer egin bihar dan esatia, izan be horretarako dare astero-astero batzarrak-eta. Dana dala uste dot helburu garrantzi-

nahastu gura ez izatia edo Gaztetxian bertan ez egittia ekintzarik 14tik 99 urte bittarte-kuak gerturatzeko.

Egunen baten hau helburuau lortu bada ez da izango makala, ondotik, eta ixa konturatzeke, beste helburu pillo bat lortuko dira-eta. Horren adibide daukagu Udazken jaixa edo Sagardo eguna.

En fin, hau danau, edadiari begiratu barik edozein herritarra hartu-emona eukitta kontu asko ikasten dirala esateko. Merezi dau edadetu-ekin kontatzia, kantatzia, poteatzia, egotia, jardutia...

LABUR

Urriaren 30 arte zabalik yogan izena emateko epea

Astelehenean hasteko zen yoga, azaroko lehen astera atzeratu da.

Alde batetik lau lagunek bakarrik eman dute izena, eta taldea osatzeko bost edo sei behar dira gutxienez. Beste alde batetik, irakasleak berak ere ezingo du azaro aurretik etorri.

Urriaren 30era arte zabaldu dute izen emateko epea. Yoga, astelehen eta eguaztetan izango da arratsaldeko 19:00etatik 20:30era. Prezioa 2.000 pezetakoa da.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Medikua 943 76 81 93
DYA 943 46 46 22
Gurutze Gorria 943 22 22 22
Odol emailiak 943 76 16 24
Hies Ekimena 943 79 26 99
Ertzaintza 943 76 53 40
Suhiltzailiak 943 78 28 00

GARRIAK

Taxiak 943 79 12 22
Pesa 902 10 12 10

UDALA

Buleguak 943 76 80 22
Faxa 943 76 82 89
Kiroldegia 943 76 82 84
Eskola 943 76 82 26

BESTELAKUAK

Parrokia 943 76 81 45
San Andres Parrokia 943 20 11 51
Farmazia 943 78 81 50
Goibeko K.E. 943 78 90 85
Goibekokale (Goienkaria) 943 79 92 71
Gaztetxea 943 78 90 43
Guraso Elkartea 943 76 82 26
Ozkarbi K.J.E. 943 76 81 49
Intxorta K.J.E. 943 76 81 46
Ozkarbi Pilota Taldea 943 76 81 49

MEZAK

Zapatuetan Iluntzeko 19:30ean
Domekataran eguerdiko 12:00etan

OHARRAK

IRAKURLIAN TXOKUA

Aurrerantzian, atal honetan izango dozue irakurliok, zuen eritzia plazaratzeko lekua. Egin, gertatu edo esaten danan aldekoa edo kontrakua izan, eritzi danak edukiko dabe beren tartia.

Etxe ondoko farolia ez dabilela, egunero jartzen zazen eserlekua apurtuta dagola, etxeko giltzak galduta jatzuzela esateko be, erabili zeinkie Irakurlian Txokua.

Goibekokale barri honetan, barikuro izango dozue, zuen kexa eta eritzizak emoteko aukeria. Ahal diran eritzi gehixenak tokixa euki deitzen, zuen gutunak gehixenez 200 berba edukitzia komeni da. Gutuna, norberak edo taldiak sinatuta, sinatzen daban nortasun agirixan zenbakixakin eta kontakto-ko telefonuakin bidaltzia komeni da. Irainak eta datu pertsonalik bariko gutunak ez dira argitaratuko.

Zuen eritzia idatzia besterik ez daukazue, gero, Goibekokalek Udaletxe azpitan daukan buzoian laga edo goibekokale@goiena.com helbidera bidali zeinkie martitzenetarako.

ZORION AGURRAK

Goienkariko ediziño barrixan etxeak eta lagunak zoriontzeko aukera eskeintzen dotsugu. Elgetan Mari Asun Agirre dendan laga zeinkie zuen zorion-agurra eta zoriondutakuan argazkixa. Argazkixak martitzena arte jasoko dira dendan, eta ez dago ezer ordaindu beharrik.

KIROLA


Xabier Ubera, DV Txapelketaren X. edizioa irabazteko faboritoen artean

O.E.

Punta-puntako afizionatu eta jubentilek hartuko dute parte hasi berria den DV txapelketan.

Xabier Ubera elgetarrak eta Haritz Laskurain plazentziarrak osatzen duten bikotea, txapelketa irabazteko faboritoen artean dago. Bikote sendoa osatzen dute Deba arroko bi gazte hauek, azpalditik ezagutzen dute elkar eta aurretik ere irabazi dituzte zenbait txapelketa.

Iaz, txapelketa irabazteko zorian izan zen Xabier, Martinez de Eulate nafarrekin batera. Iazkoan txapeldunorde izan ondoren, aurtengo helburua, iaz bezala txapelketa ona egitea da. Xabierrek eta Haritzek, azaroaren 9an ekingo diote txapelketari. Elgetan jokatu dute partiduan.



ARTXIBOA

LABUR

Urriak 22an odola emateko aukera izango da

Urtean bitan, apirilean eta urrian, etortzen dira Odol Emaileak odola batzera.

Urriak 22an, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, udal-txean batuko dira odola eman nahi duten guztiak. Herriko-taldeak, odola ematera animatu nahi ditu elgetarrak.

Lau urtetik beherakoentzat ludoteka

Urtero bezala, lau urtetik beherakoentzat, ludoteka bezala erabiltzeko gela eskatu dute Guraso Elkartekoek.

Gurasoek izango dute gela zabaltzeko ardura. Astelehene-rik barikura zabalduko da, arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara. Martxoaren 31 arte egongo da ludoteka irekita.

BAPATEKUA/ Jesus Mari Agirrezabala · Udaletxeko kontabilista

“Udaletxeko egoera ekonomikua berezixa da, herri txikixa izanda gauza asko egitten diralako”

Bi urtetik ona, Trintxerpetik Elgetarako bidia ondo ikasi dau Jesus Mari. Egunero etortzen da, udaletxeko kontuen arduraduna bera da-eta.

Herriko kontuak zure eskuetan dare, erresposabilitate haundixa izango da?
Bai, diru kontuekin kontu haundixakin ibilli bihar da eta.
Berba baten, zelan laburtuko ziñuke Udaleko egoera ekonomikua?
Berezixa. Gauza asko egitten dira herri txikixa izateko.
Eurua onerako ala txarrerako izango da?
Onerako.
Euskal Herriko herri polititena?
Donostia.

Fakturak ordaintzeko, eskuz ala taloiakin?
Transferentzixa bidez.
Fakturarik badaukazu ordaintzeko?
Bai, hiru hilabetera ordaintzen dira-eta.
Kontuak egitteko kalkuladoria erabiltzen dozu?
Bai, gaiñera paperduna, gero egindakua erreparatzeko.
Zenbat pezeta dira milla euro?
Ehun eta hirurogeita sei milla hirurehun eta laurogeita sei.
Egunian zenbat ordu egitten dittuzu lo?
Astegunez zazpi, asteburutan sestia dala-eta gehixau.
Loterixia tokatu ezker zer egingo ziñuke?
Etxebizitza ordaindu.



Esan dozun azken gizurra?
Ez dot gizurrik esaten.
Zer armozatzen dozu?
Txikittatik kolakaua.
Mobilla badaukazu?
Bi, bat kotxian eta bestia motxilan.
e-maila ala karta?
Duda gabe e-maila.
Zein miresten dozu?
Inor ez.
Siñistuna zara?
Zentzu batian bai.
Kirolik gustokuena?
Ikusteko, tenisa.
Zer falta da Elgetan?
Jendia.
Gabia ala eguna?
Eguna.
Telebisiñua ala irratixa?
Egunez irratixa eta gabez telebisiñua.


Elgeta-Piel

Astelenehrik barikura:
17:00-20:00
Zapatuak:
10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Domekak: 11:00-13:30

Domingo Iturbe 8, ELGETA
943 76 81 12

Uriburu UTEK saltzen du:
Domingo Iturbe kalean
ETXABE KOMERTZIALA
Etxe berrien azpian
PREZIO INTERESGARRIAK
943 76 11 23
670 781 759


Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

ERRETRATU ZAHARRA

Arloteak taldea
herriko futbol
txapelketan

Azken urteotan, uda partean jokatu izan da herriko futbol txapelketa, Ipintzan. Orain dela urte batzuk, berriz, Seminarioan izaten ziren partiduak, eta finalak Pazkoetan jokatzeko ziren. Talde mordoa izaten zen lehian, hainbat kategoriatan banatuta. Herriko elkarte askok eta askok taldea osatzen zuten, eta koadrila gehienak aritzen ziren nor baino nor. Gauzak horrela, oraingo asteko erretratuan, Arloteak taldea ikus dezakezue. Argazkia 1980. urteko Pazkoetan ateratakoa da. Argazkian agertzen direnek 17 edo 18 urte zituzten orduan. Arloteak talde ona zen, eta behin baino gehiagotan iritsi zen finalera. Antza denez, talde bakoitzeko bederatzi jokalaririk aritzen ziren Seminarioko zelaietan. Ez dugu jakiterik izan zeinen aurka jokatu zuten finala eta ea txapelketa kopa eskuratu zuten edo ez. Hala ere, honako hauek dira, Pazkoetako brusa jantzita, partiduaren atarian euripean agertzen direnak, ezkerretik eskumara:



Zutik: Iñaki Eguren, Jesus Elkoro-barrutia, Karlos Gorrotxategi, Josu Etxezarreta eta Jon Ander Larrañaga.

Makurtuta: Antonio Sanchez, Jose Ignacio Franco, Juanjo Salamanca eta Iñaki Toledo.

Argazkia: Jabier Areitio

ADI IRAKURLE!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituztu, zatoz!

NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

Udaletxea
goitik behera
berritu zuten

Udaletxearen berritze lanak 1992an hasi ziren. Iñaki Aspiazu arkitektoaren proiektuari jarraituz, Construcciones Amenabar enpresak egin zituen lanak. Udaletxe berria 1995eko maiatzaren 6an inauguratu zuten. Besteak beste, Eli Galdos ahaldu nagusia, Anton Arbulu Hirigintza diputatua eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren ekitaldian.



± 1991 Lucas de Longa arkitektoaren zuzendaritzapean, Bergarako Udaletxea 1679-1700 bitartean eraiki zen.



2001 Berritze lanek 870 milioi pezeta inguruko aurrekontua izan zuten, eta Diputazioak 400 milioiko dirulaguntza eman zuten.

M
MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA

Zumelaga
JATETXEA

59 urte zuten zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

• Lan-babeserako artikuluak
• Seinaleztapena
• Jantziak

Leizeaga 1. BERGARA
Tf. / faxa 943 76 59 53.

**Zuri Beltz
margoak**

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara



BERGARAKO BULEGO BERRIA



BERGARA
Ibargarai 3.
Tel. 943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
Tel. 943 73 05 25


10 URTEKO ESPERIENTZIA!

ARREGI AROZTEGIA



Sukaldeak
Arozlan mekanikoak
Ateak
Horma-armairuak

Tarimak eta Parketak
Neoprenozko juntadun
egurrezko leihoak
PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko bainugela eta sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu...

Eta zeramikako azken berrikuntzak.

Jakina, zurekin pentsatzen.

FAGOR 
Sukaldeko altzariak

AENOR

Produktu zertifikatua

6
URTEKO
GARANTIA

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.